

Barrena



Geltokiaren aldeko borrokari tinko eusten diote Altzolan


Altzolako Tren Geltokia Bai plataformakoak ez daude trena galtzen uzteko prest; Alfonso Rubio plataformakideak esan du daukatenari eustea besterik ez dutela eskatzen, eta ez dutela amore emango, bide guztiak agortu arte / 4

Tren Geltokia Bai plataformak deituta Altzolako geltokian egindako protesta-ekintza bat.

TEKNOLOGIA

Doinu sortu dute Debarrenean, Spotifyren alternatiba etikoa izateko asmoa duen aplikazio berria

Egoitza Eibarren duten Wakame Musika Elkartekoek sortu dute aplikazioa, musika "libreki entzun eta partekatu nahi dutenentzat", elkartekideek azaldu dutenez / 2-3



DOINU

MUSIKA

Judash taldeak hasi eta Anestesiak itxiko du bihar Ermuko Vertigo Rock jaialdia / 11



ARAITZ BARRUETABEÑA

MENDIZALETASUNA

Mendizaletasunaren jaia egingo dute bihar, larunbata, Elgoibarren: Morkaikoren Eguna / 6



ASIER ORBEA

LITERATURA

Peru Abarka lehiaketa irabazi du Nerea Loiola debarrak, 'Gramo bat' lanarekin / 18



NEREA BEDIALAUNETA

ESKUBALOIA

Urrats batera du Lauko Ermuko Errotabarri taldeak Urrezko Ohorezko Maila

Igoera fasea jokatu dute asteburuan, eta diru bila hasita dabilta zuzendaritzakoak, onenerako prestatzeko / 12



Atarrabian matematikoki txapeldun izendatu ziren eguneko argazkia. ERROTABARRI

Probidentzia Andra Mari ikastetxea
www.aldatze.eus

B eredua

aldatze

Eibar

943 70 11 50 / aldatze@aldatze.org

"Musika komunitatearekin partekatzeko arte aske bezala ulertzen dutenentzat da Doinu"

ITXASO WAKAME DOINUREN KOMUNIKAZIO-ARDURADUNA

Ander Gomez DEBABARRENA

Apirilean, musika entzuteko eta partekatzeko aplikazio berria argitaratu zuten: Doinu. Android plataforman kaleratu zen lehenengo, eta hilaren bukaeran atera zen iOS gailuetarako bertsioa. Debabarrenean jaio da, eta sortzaileek "Spotifyren alternatiba etiko" bezala definitu dute. **Zeintzuk zaudete proiektuaren atzean?**

Eibarko, Ermuko eta Bilbo aldeko musikazaleok osatzen dugun Wakame Musika Elkarteko kideak. Eibarren dugu egoitza, eta *management* edo kudeaketa-lanak egiten ditugu, berez, tokiko talde txiki eta ertainei kontzertuak topatzen laguntzeko.

Kudeaketa kontuei lotuta egonik, nolatan animatu zarete Doinu aplikazioa sortzera?

Munduko panoramari, gertatzen ari den genozidioari begira, hainbat enpresari zuzendutako boikotak egon dira: Carrefour, Coca-Cola... Guk, musika kontsumitzaile sutsu eta musikari gisa, gertuagotik bizi izan dugu *Spotifyri boikota* mugimendua, eta ezin ginen besoak gurutzaturik geratu. Komunitateak edo herriak egin dezakeen guztia

egin behar duela uste dugu, eta guk pixka bat haratago joan nahi genuen.

Orduan sortu zen ideia?

Idea bageneukan, baina gorpuztu egin genuen. Galdezka hasi ginen ea posible zen buruan geneukana gauzatzea. Ez gara ez informatikari ez programatzaile, eta aplikazioa garatzeko adituak bilatu genituen. Kode ireki bidez posible zela ikusi zen, eta, espektatiba handi barik, aurrera egitea erabaki genuen. Azkenean, lortu dugu bila ari ginena, komunitateari alternatiba bat eskaintzea.

"Spotifyren alternatiba etiko" bezala definitu duzue. Zergatik?

Alde batetik, aipatutako arrazoi politikoengatik, genozidioa eta boikota; bestetik, musika industriaren funtzionamenduagatik. Taldeko bi kide musikariak dira, eta badakite zein zaila den ikusgarritasuna lortzea. Egungo industria bortitza eta perbertsoa da, talde askok plataformetan egon behar dute existitzeko, eta etengabeko lehia sustatzen da erreproduktzio-kopuruen bidez. Doinuk, ordea, ikusgarritasun bertsua ematen die artista guztiei: ez dago erre-

produktzioen kontaktarik, ezta urte amaierako ranking zororik ere. Entzuleak bere kabuz bilatu, sortu eta deskubritu behar du musika, algoritmoen presio-rik gabe. Helburua ez da lehiatzea, baizik eta elkarrekin espazio justuagoa sortzea, non musika libreki entzun eta partekatu daitekeen.


Hilabete eskasean abesti eta talde dezente lortu dituzue.

Bai. 80 taldetik gora batu dira, askotariko estiloetakoak; 200 album baino gehiago argitaratu dira; eta, guztira, 1.000 abesti baino gehiago daude entzungai. Egia esan, harrera itzela izan da eta oso pozik gaude.

Talde horiek guztiek dirurik lortzen dute? Ala zabalkundea bakarrik?

Aplikazioa erabat doakoa da, taldeei ez zaizkie erreproduktzioak kontatzen, eta, hortaz, ez dago ordaintzeko dirurik. Orokorrean,

"Genozidioarekin eta musika industriaren bortizkeriarekin loturarik ez duen plataforma da"



Komunitaterako sortu den heinean, arreta aplikazioan jarri behar dela uste dute sortzaileek, eta ez eurengan. DOINU TALDEA

komunitatea eta etika dira batzeko arrazoi nagusiak. Doinu taldean lelo bat daukagu: *Eszenatik eszenarako*. Talde bakoitzak bere musika aske zabaltzeko arte bezala ulertzen badu, hau da bere tokia. Gero, negozioa egin nahi duenak kontzertuak edo *merchandising*-a saltzen egin dezake.

... eta zuek?

Ezta ere. Kontrara, gure poltsikoetatik ordaindu ditugu hasierako hauspoa emateko beharrezko ziren gastuak. Aurrera begira, mantentze-lanen kostua

komunitateak estaltzea espero dugu. Androiden badago Paypal bidez dohaintza egiteko aukera, eta jaialdiren bat antolatzea ere aurreikusi dugu. Baina lortzen den guztia aplikaziorako da; guk ez dugu irabazirik, eta ez ditugu nahi ere.

Zelan lortu duzue musika taldeak aplikaziora erakartzea?

Elkarteko kideen taldeak sartu ziren lehenengo, eta, gero, ahoz aho zabaldu da. Eszenan gertatzen den gauza polita da balio etiko berak izanez gero elkarri kontaktzen diola jendeak. Apli-



INSTALAZIOAK ETA MANTENIMENDUA



zerbitzu tekniko integralak

Energia horago, instalazioak osatu eta habeteke lan teknikoak egiten ditugu. Industria eta etxebizitzarako itenbide integralak.



aeroterminia

Aeroterminia-sistemen fabrikatzaile onenetik lan egiten dugu, eta hori esker puntu-puntuako produktuak eskaintzen ditugu.



eguzki energia

Zure energia-beharen arabera proiektu personalizatuek diseinatu ditugu, errentagarriak eta jasangarriak izan daitezten.



ezar

INSTALAZIOAK ETA MANTENIMENDUA

industriarako zerbitzu integralak

- %85 arteko laguntzak (Epea: Irailaren 30)
- %90 arteko autonomia energetikoa
- Autokontsumoa elkarbanatu daiteke
- Instalazioa zure etxetik, lantegitik edo lur-sailetik 5km-ko distantzira kokatu daiteke

 José María Linazasoro, Mendara 20850 (Gipuz) www.ezar.eus T. 943 01 91 55 info@ezar.eus

kazioa sare sozialetan iragarri genuenean ere, talde nahikotxo jarri ziren gurekin harremant, nola batu zitezkeen galdeza. Polita da, gure leloak dioen moduan, komunitatea laguntzen duena komunitatea delako. Orain, oihartzuna zuena bezalako komunikabideetara ere heldu da, eta badoa esponentzialki martxa hartzen. Nabaritzen da honek zentzua duela jendearentzako.

Zer egin behar dute artistek euren musika Doinun izateko?
Mezu elektronikoa bat bidali behar dute doinuapp@gmail.com hel-

bidera. Artista dezente batu diren honetan *ilara* pixka bat dagoen arren, nahiko arinak gara erantzuten, eta, behin abestiak, argazkiak... bidalita, lana gure gain geratzen da. Eskuz jasotzen dugu dena, banan-banan. 90eko hamarkadako prozesua dirudi, guztiz *Do it yourself*, baina gustura egiten dugu, eta modu erabat altruistan.

Azken mezurik irakurleentzat?
Aplikazioa atera berri da, eta musikazaleei batzeko eta deia zabaltzeko eskatuko genieke, bultzadaxoa emateko. Hala ere, zerbaki potoloak lortu ditugu: 2.000 erabiltzaile baino gehiago daude jada. Artistei dagokienez, garbi utzi nahi dugu ez dagoela kontraesanik Spotify bezalako plataformetan egon nahi badute; batzuek beharrezko dute, eta ondo dago hori ere. Bestela, ez dago inongo genero-irizpiderik: etika partekatzea eta beren musika komunitateari eskaintzeko arte aske bezala ulertzea.

1.440

ERABILTZAILE ANDROIDEN
Apirilaren 3an jarri zen eskuragarri Google Play Store aplikazio-dendan

610

ERABILTZAILE IOS-EN
Apirilaren 23an kaleratu zuten iPhone gailuetarako bertsioa App Storen



Doinu aplikazioa deskargatzeko, eskaneatu QR kode hau.

Doinu plataformarekin bat egin duten taldeak



CHULERIA, JODER!
EZKERRALDEA

"Toki etiko eta segurua delako batu gara Doinura"

"Musikariak Palestinarekin ekimenean irmoki sinesten dugu, eta Spotify plataformari egindako boikotean ere bai. Izan ere, Doinu plataforma gure musika elkarbanatzeko toki etiko eta segurua iruditzen zaigu, eta alternatiba ezin hobea plataforma genoziden aurrean. Horregatik, argi izan dugu non egon talde bezala eta non ez".



SLIDE
DEBABARRENA

"Taldea txikiak ikusezin gara plataforma handietan"

"Euskal musika talde txikiak beharrezkoa zen: alde batetik, entzuleei gure musika modu etikoan kontsumitzeko aukera ematen die; eta, bestetik, gu bezalako talde txikiak ohiko plataformetan oharkabean pasatzen garenez, Doinuk aukera eman digu sekulako artistak ezagutzeko, eta, gainera, gertukoak direnak".



TURBO KRAKS
FERROL (GALIZIA)

"Underground musikak doako aplikazioak behar ditu"

"Doinuren parte izatera animatu gara, autogestionatutako post-hardcore talde bat garelako eta underground musika entzuteko doako plataforma bat beharrezkoa dela uste dugulako. Baina garrantzitsuena, proiektua gomendatu digun eta bere atzean dagoen pertsonetako bat benetan bikaina delako".



MIKEL INIGUEZ
DENTAL STUDIO

ODONTOLOGIA DIGITALA

INPLANTOLOGIA

PERIODONTZIA

AHO KIRURGIA

AHO-ERREHABILITAZIOA ETA ESTETIKA

SEDAZIO KONTZIENTEA

CBCT 3D TEKNOLOGIA

RPS: 81/25



WWW.INIGUEZDENTALSTUDIO.COM

INIGUEZ_DENTALSTUDIO

KALEBARREN PLAZA 4W. BEHEA / 20870 ELGOIBAR

616 68 03 11

"Daukagunari eustea baino ez dugu eskatzen"

ALFONSO RUBIO TREN GELTOKIA BAI PLATAFORMAKO ORDEZKARIA

Altzolako tren geltokia mantentzeko borrokan jarraituko dute, bide guztiak agortu arte

Ainhoa Andonegi ELGOIBAR

Altzolan tren geltoki berria egin-go zutela agindu zuen Eusko Jaurlaritzak 2012an, baina, handik urte batzuetara, geltokia ez berritzeaz gain, kentzea erabaki zuen. Altzolako bizilagunek Tren Geltokia Bai plataforma sortu zuten, geltokia defendatzeko.

Noiz eta nola sortu zenuten tren geltokiaren aldeko plataforma?

2022ko abenduan jakin genuen Eusko Jaurlaritzak Altzolako tren geltokia ezabatu zuela 2012an onartuta zeukan proiektutik. Hasieran, ezin genuen sinistu, baina egia zela ziurtatu genuenean erabaki genuen zerbait egin behar genuela. Ordurako, Altzolako Auzo Elkarteak sortuta zegoen, aurretik Zubibai izandakoa, eta haren barruan sortu genuen Tren Geltokia Bai plataforma. Taldetxo bat bildu ginen, tren geltokiarekin zer gertatu zen ikertzeko eta, bereziki, geltokia mantentzeko.

Egin dezagun atzera. 2012an, Altzolan tren geltoki berria sortzeko proiektua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak.

2012an, Eusko Jaurlaritzak proiektu bat sortu zuen Altzolako tren geltokiaren gainean. Proiektu hartan jasotzen zen egungo tren geltokia kendu egingo zutela, ez zelako irisgarria, eta 200 bat metro mugituko zutela, tunelaren aldera. Egun dauden eskailera guztiak kendu eta bi igogailu egitea aurreikusita zegoen, geltoki irisgarria sortzeko. Estazio sinplea zen, baina erabilgarria. Alfredo Etxeberria alkate zela landu genuen proiektua harekin, baita garai hartan Euskotreneko arduradunak zirenekin ere; tartean, Iñigo Palominorekin. Denon artean adostutako proiektu hura Buletinean publikatu zen, bi aldiz: 2011n, lehenik, alegazioak egiteko; eta, alegaziorik egon ez zenez, 2012an argitaratu zuten behin betiko proiektua.

Hamar urteren ondoren, zer gertatu zen orduan hartutako erabakia bertan behera lagatzeko?

Inork ez digu azalpen garbirik eman. Guk uste dugu krisi ekonomikoaren ondorioz hartutako



Legebiltzarrean ateratako argazkia. Ezkerrekoa da Alfonso Rubio. TREN GELTOKIA BAI PLATAFORMA

erabakia izan zela. 2012 inguruan hasi zen, eta hurrengo urteetan murrizketa asko egin zituen Jaurlaritzak, alor askotan. Tesuinguru hartan erabaki zuten Altzolako geltokia proiektutik ezabatzea, baina ez zuten inon horren berri eman. Ezkutuan hartutako erabakia izan zen.

Nola jakin zenuten?

Bere garaian, hainbat enpresa aurkeztu ziren obra egiteko lehiaketa publikora, eta proiektu guztietan tren geltoki berria egitea aurreikusten zen. Proiektu osoaren %10eko kostua zeukan geltokiak. Fulcrum enpresak irabazi zuen lehiaketa, eta haren bitartez jakin genuen. Guk uste dugu enpresak ere deiren bat jasoko zuela proiektua eraldatzeko, baina zehatz-mehatz ez dakigu ezer, inon ez dagoelako aldaketa dokumentatuta. Sines-tezina iruditzen zaigu! Geltokia berritzea proiektu batean jaso zuten, eta geltokia ezeztatzea ere nonbaiten jasota egon behar-ko litzakete, baina ez dago. Dokumentu hori behin baino gehiagotan eskatu dugu, eta Elgoibarko Udalak ere eskatu duela badakigu, baina ez digu inork ematen, gure ustez, ez delako

existitzen. Ez dago inon jasota, eta, antza denez, 2015ean hartutako erabakia da. Gauzak nola diren! Geltoki berria egingo zutela lau haizeetara zabaldu zuten, prentsan irten ziren horren berri ematen, baina kontrako erabakia hartu zutenean ez zuten inon iragarri.

Elgoibarko Udalak ere ez al zizuen ezer komunikatu?

Udalak ez zekien ezer. Jakin dugunez, mezulari baten bidez iritsi zen jakinarazpena Udalera. Gutun bat iritsi zen, DVD batekin, 2015ean. Udal hauteskundeak izan ziren, eta Alfredo Etxeberriaren ordezkari Ane Beitia sartu zen alkate. Aldaketa hartan, gutun hura kaxoi batean galduta-edo geratuko zela uste dugu. Ane Beitia, behintzat, esan zigun berak 2022an jakin zuela geltokia ez zutela egingo; hain zuzen ere, alkatetza uzteko bezperatan. Dena dela, Udaleko arkitektoa jarri zen Jaurlaritzarekin harremanetan, aditzera emateko Altzolako tren geltoki berria egingarria zela. Guk dakigula, bi aldiz eskatu zuen azalpen-txostena Elgoibarko Udalak, baina, esan digutenez, ez zuten erantzunik jaso. Gu

konbentzita gaude murrizketa ekonomiko bat izan zela, eta ez zutela inolako txostenik edo proiekturik egin.

Arartekoarengana, Gipuzkoako Batzar Nagusietara eta Legebiltzarre ere joan zarete, baina, momentuz, obrak aurrera segitzen du.

Ate guztiak jo ditugu. PSOEko politikariek harridura gauden; izan ere, 2012an defendatzen zutena orain ez dute defendatzen. Gipuzkoako Batzar Nagusietan EH Bilduk eta PPK bat egin zuten Altzolako geltokiaren alde.

"12 milioi euroko obratik, 254.000 ziren geltokiarentzat; hori murriztu dute"

"Bide guztiak erabili eta prozesuaren amaierara arte iristeko asmoa daukagu"

Pentsa, bi alderdi horiek ados jartzea lortu dugu. Legebiltzarre ere jo dugu, eta eraman ditugu herritarrek emandako ia 6.000 sinadura, baina, momentuz, behintzat, ez dute jarrera aldaketarik erakutsi. Legebiltzarrean bozkatzeko testu bat aurkeztu nahi dugu, baina ez dugu uste aurrera egingo denik, EAJk eta PSOEek gehiengo dutelako.

Noraino iristeko asmoa duzue?

Bide guztiak erabiliko ditugu, eta prozesuaren amaierara arte iristeko asmoa daukagu. Hainbat ekintza egin ditugu prozesua finantzatu ahal izateko, eta azkenera arte borrokatuko gara. Legeak dio ezin daitekeela ofizialki onartuta dagoen proiektu informatibo bat aldatu, beste proiektu informatibo bat ez badago. Horri heldu nahi diogu, ez baitago tren geltokia ezeztatzen duen proiekturik. Abokaturen bat hartzeko asmoa daukagu, eta, beharrezkoa bada, auzitara joko dugu. Badakigu denbora kontra daukagula. Gauza hauek luze jotzen dute, eta litekeena da sententzia bat egoterako obra oso aurreratuta egotea. Gero oso zaila izango da atzera egitea.

Zer eskatzen duzue, zehazki?

Daukagunari eustea baino ez dugu eskatzen. Udalak eman digu autobus zerbitzua indartzeko aukera, baina guk tren zerbitzua mantentzea nahi dugu. Izango balitz ez daukagula? Baina egun badaukagu, eta hori kendu nahi izatea ez da bidezkoa. Esaten dute geltokia ez dela erabiltzen, baina nola erabiliko da, ba, dagoen egoeran? Ez da irisgarria, eta egunean zortzi tren bakarrik geratzen dira. 12 milioi euroko obra baten barruan, 254.000 eurokoa zen geltokiaren kostua. Hori murriztu dute. Diote geltokia kendu egin behar dela, trenen maiztasuna handitzeko eta bigorria egiteko, baina hori ez da egia. 2012ko proiektu hartan hori guztia ere jasota zegoen. Gune degradatua da Altzola, eta geltokia kenduta, are gehiago degradatuko da.

NIRE USTEZ

Gaztetxeei gorazarre**ARKAITZ URANGA**
ITZULTZAILEA

Euskal Herriko kultura eta kulturgintza betidanik izan dira hizpide mota askotako esfera eta testuingurutan. Ukaezina da gurean duguna berezia eta propioa dela, eta ez dela erraza pareko zerbaite topatzea. Horren atzean, noski, faktore, ezaugarri eta inertzia asko daude, baina gure kultur ereduaren bizkarrezurrean gaztetxeek pisu handiari eusten diote

Gure gizarte postmodernoa kultura erabat asimilatuta dago eskema kapitalisten barruan, eta oso zaila da zirkuitu horietarik kanpo operatzea. Baliabideak, materiala, espazioak, kudeaketa eta beste horrenbeste oinarritzko elementu merkatuaren logika eta dinamikaren baitan kokatzen dira, eta horrek zailtasun handiak sortzen ditu kultur adierazpide jaioberrien garapen prozesuan.

Gaztetxeak, ordea, oasi bat dira desertu gupidagabe horretan, logika merkantilista eta kapitalistetatik at existitzen direlako. Beste balio eta printzipio sistema baten arabera sortu, antolatu eta gorpuzten dira, eta horregatik betetzen dute funtsezko rola euskal kultur sistematan. Hain zuzen ere, ez dutelako etekin ekonomikoa jomugan, ezpada komunitatearen nahi, behar eta ezinegonetatik sortzen den horri babeslekua ematea.

Kulturaz gain, gaztetxeak funtsezko espazioak dira antolakuntzarako, jardun politikoa garatzeko, aisialdia sustatzeko, komunitatea trinkotzeko, eta beste horrenbestetarako. Edonola ere, eta zoritxarrez, azkenaldian gaztetxeen aurkako oldarraldia nabarmena izaten ari da; esaterako, azken hilabeteetan

"Gaztetxeak oasi bat dira desertu gupidagabe horretan, logika merkantilista eta kapitalistetatik at existitzen direlako"

Arrotxapeko, Galdakaoko eta Errekaldekoak indarkeriaz hustu dituzte. Testuinguru horretan, ezinbestekoa da gaztetxeen aldeko borroka aldarrikatzea eta hauspotzea, eta horretara datoz, hain zuzen, Euskal Herriko Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Topaketak; Euskal Herri osoko gaztetxeen arteko saretea sustatzera. Maiatzaren 29an eta 30ean Elorriora!

GUTUNAK

Biolentzia sexualak eta bortxaketek gora egin dute Europan**A.I.**

ELGOIBAR

Eurostategen –Europako Batasuneko estatistika-bulego ofiziala– ikerketa egin du Europako Batasuneko polizia erregistratutako datuetan oinarrituta biolentzia sexualaren eta bortxaketen inguruan. 2014az geroztik Europa mailan biolentzia sexualak kasuak %94 igo dira, 124.350 kasu gehiagorekin. Bortxaketak, berriz, %150 igo dira, 58.983 kasu gehiagorekin. Guztira, 2024. urtean 256.302 biolentzia sexual eta bortxaketa kasu jaso zituzten polizia erregistratutako datuekin konparatuta, 2024an biolentzia sexualak kasuak %5 igo dira, 12.087 pertsona gehiagok pairatu dituzte, eta bortxaketak %7 igo dira, 6.291 kasu gehiagorekin. Hortaz, guztira azken hamarkadan urtero %10 hazi dira biolentzia sexualaren kasuak eta %7 bortxaketak. 2024an kasu gehien erregistratutako herrialdeen artean, Frantzia, Alemania, Suedia eta Espainia daude.

Eurostaten arabera, gizartearen izan den kontzientziazioak kasu gehiago erregistratzea ekarri du. Aldi berean, kontuan hartu behar da gertatu diren eraso guztiek ez dutela zertan erregistratuak izan eta kasu gehiago egon daitezkeela.

Gurera gerturatuz, azken hamarkadan, Espainiako

Estatuan erregistratutako biolentzia sexualak kasuak gora egin dute –salbuespena 2015ean eta 2020an izan zen; datuek behera egin zuten–. 2024an, 2014an baino 12.159 kasu gehiago erregistratu dira, 19.655 orotara. Bortxaketen kasuan, berriz, datuek gora egin dute –2020a salbuespen–. 2024an, 2014an baino 3.983 bortxaketa gehiago erregistratu dira, guztira 5.222.

Ez al dira datu beldurgarriak?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). BARRENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturunea 3-3, 20870 Elgoibar / barrena@barrena.eus

BarrenaDEBABARRENEKO
KOMUNIKAZIO TALDEA**Argitaratzailea**Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus**Lehendakaria**

Gaizka Azkarate.

Zuzendari nagusia

Egoitz Unamuno.

Eduki arduraduna

Ainara Argoitia.

Erredakzio batzardeaAinara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Izaro
Aulestiarte.**Kazetariak**Ainara Argoitia, Ainhoa
Andonegi, Alex Turrillas, Ander
Gomez, Asier Orbea, Egoitz
Unamuno, Izaro Aulestiarte,
Nerea Bedialauneta, Ubane
Madera.**Diseinu arduraduna**

Oier Larreategi.

Zuzentzailea

Sergio Azkarate.

Kidetzak eta banaketa

Alex Turrillas.

Maketazioa

Zalao Arnaiz, Oier Larreategi.

Publizitatea

Leire Rubio.

HARPIDETZAElgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus**PUBLIZITATEA**Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
publi@barrena.eus**DEBAKO EGOITZA**Deba 20820
Ifor Kalea 12, behe
943 19 13 83**ELGOIBARKO EGOITZA**Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12**ERMUKO EGOITZA**Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50**SORALUZKO EGOITZA**Sorluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04**Lege Gordailua:** LG D 993-2025

ISSN: 3101-2647

Tirada: 10.500 ale

Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzunkizunik.

LAGUNTZAILEAK

Debako
UdalaElgoibarko
UdalaErmuko
UdalaMallabiko
UdalaMendaroko
UdalaMutrikuko
UdalaSoraluzeko
Udala**EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO**GIPUZKOA**
Foru AldundiaBizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Igoerarik gabe geratu dira Malape eta Alcorta eskubaloit taldeak, lauko finaleran lehiatu eta gero

Sanloko taldeek burua gora esan diote agur Euskadiko txapelketari



Malapekoak, Berangoko lauко finalera animatzera joandako zaleekin batera. SANLO

Asier Orbea

Alcorta eta Malape eskubaloit taldeek mailaz igotzeko kanporaketak jokatu zituzten asteburuan: gizonezkoen taldeak Lehen Nazional Mailara igotzeko lauко finala jokatu zuen, Legazpin; eta, bestetik, emakumezkoen Malape taldeak Ohorezko Zilarrezko Mailara igotzekoa jokatu zuen, Berango.

Alcortak izan du gertuen Caelan (Herrialde Katalanak) jokatuko duten igoera faserako sailkatzeko aukera. Zapatuan jokatutako finalerdietan Muskiz kanporatu zuten, 21-18 irabazita. Domekan jokatu zuten finalean, elgoibartarrek Loiuko Urdeneta taldea izan zuten aurkari. Liga erregularrean Alcortak irabazi zituen elkarren aurkako bi par-

tidak, baina finalean Loiuko taldea gailendu zen, 22-20. Alcorta iaz ere ailegatu zen lauко finaleko azken partidara -Zarautzen aurka galdu egin zuten-. Ekinaren ekinaz saiatzen jarraitzea dagokie.

Etxeko taldea nagusi Berangoko lauко finalean

Malapek, berriz, ezin izan zuten finalerdietako kanpora-

keta gainditu, 35-26 galdu baitzuen Berango Urduliz taldearen aurka. Zaleen aurrean jokatzeari etekina atarazio Berangok, eta nagusitasunez gailendu dira lauко finalean, domekan jokatutako finala ere nagusitasunez irabazi baitzuten: 25-18, Construcciones Ugarte taldearen aurka.

Hiru txirlo tiraldia, bihar, Aiastiako bolatokian



Bola eta txirloak. TOKIKOM

Gipuzkoako Hiru Txirlo bola-joko txapelketako zazpigarren jardunaldia hartuko du bihar, hilak 9, Aiastiako bolatokiak. 17:00etan hasiko da lehia. Gaur gauean ere jokatuko dute tiraldia, 23:00etan hasita. Soralezko Ezozki auzoko bolatokiak jokatu zuten azken jardunaldian sailkapeneko liderra gailendu zen, UDA Aretxabaleta taldeko Gorka Madinabeitia. Bittor Astigarraga (Elgeta) eta Bittor Ugarteburu (Asola Berri) daude sailkapeneko bigarren eta hirugarren postuetan sailkatuta.

Mintxetako atleten garaipenak Zarautzen eta Kantabrian

Emitza bikainak eskuratu zituzten joan zen asteburuan

Asier Orbea ELGOIBAR

Oihane Aguirrebeña Iturbe izan zen emakumezkoen azkarrena Zarauzko VIII. Herri Lasterketan. Antxintxikari elgoibartarrak 36 minutu eta 54 segundotan osatu zuen ia bederatzi kilometroko ibilbidea. Natale Bergara (37:39) eta Andrea Muñoz (38:09) sailkatu ziren bigarren eta hirugarren postuetan. Gizonezkoetan Jokin Bellido oriotarra izan zen azkarrena (28:06). Guztira 200 korrikalarik parte hartu zuten *A 3 el km!* taldeak antolatutako proban.

'El desafío de la ballena' lasterketa

Mintxeta taldeko Idoia Nogales debarrak irabazi zuen *El desafío de la ballena* lasterketa. Kantabriako Santoña, Colindres eta Laredo herriak batzen ditu proba horrek, bi distantzian: Santoñatik abiatzen den 19,5 kilometroko lasterketa eta Colindrestik abiatzen den 10 kilometrokoa.

Helmuga bera dute biek: Laredoko Talaiako begiratokia. Nogales 10 kilometroko proban gailendu zen, 42 minutu eta 7 segundoko denborarekin. Gizo-

nezkoetan Juan Carrascal izan zen azkarrena (36:00) eta Lea La Blanca taldeko Alberto Arberas Aguirrebeña elgoibartarra sailkatu zen bigarren postuan.



Oihane Aguirrebeña, helmuga gurutzatzen, Zarauzko herri lasterketan. GUKA

550 lagun inguru elkartuko ditu Morkaikoren Egunak bihar

Asier Orbea

Elgoibarko Mendi Itzulia, Itzulitxoa eta Finalista Eguna batzen dituen Morkaikoren Egunaren hamalagarren ekitaldia egingo dute bihar. Elgoibarko Itzuliko partaideak 06:00etan irtengo dira, Kalegoen plazatik, eta 38 kilometro inguruko mendi itzulia osatu beharko dute. Umeek

Itzulitxoa parte hartzeko aukera izango dute; 08:30ean irtengo dira, Kalegoen plazatik, eta 10:00etan, Idotorbetik. Finalista Eguneko dominak ere banatuko dituzte, eta aurten 84 umek jasoko dute aitortza igotako mendiengatik. Morkaiko-koek azaldu dutenez, 200 lagunek eman dute izena bazkarirako.



Iazko Morkaikoren Eguneko irudi bat. ASIER ORBEA

Lankidetza hitzarmena sinatu dute ikastetxeek eta Elgoibarko Udalak

2026ko hainbat ekintza finantzatzeko dirulaguntza jasoko dute ikastetxeek

Ainhoa Andonegi

Elgoibarko Udalak hitzarmen bateratua sinatu du herriko ikastetxeekin, 2026an hainbat jarduera hezitzaile eta komunitario diruz laguntzeko. Hitzarmena honako hauek sinatu dute, besteak beste: Maialen Gurrutxaga, Elgoibarko alka-tea; Aitor Iriondo, Hezkuntza, Gazteria eta Euskara arloetako zinegotzia; Ion Vazquez, Elgoibar Ikastolako zuzendaria; Nerea Lago, Herri Eskolako idazkaria; Jone Agirregomez-korta, Elgoibarko Institutuko zuzendaria; Jose Mari Beristain, MEKA Lanbide Eskolako zuzendaria; Ixaka Egurbide, IMHko zuzendaria; eta Miren Estibalitz Arando, EPAko idazkaria.

Honako hauek izan dira laguntzen onuradunak eta zenbatekoak:



Udaleko eta ikastetxeetako ordezkariak. UDALA

- **Elgoibar Ikastola:** 57.364 euro
- **Elgoibarko Herri Eskola:** 26.893 euro
- **IMH:** 63.595 euro
- **Meka Lanbide Eskola LHII:** 9.875 euro
- **Elgoibar Arreiturre BHI:** 25.907 euro
- **CEPA Eibar-Eibarko HHI:** 1.800 euro

Xaribari taldea, bihar, gaztetxean

Elgoibarko Gazte Asanbladaren 40. urteurrenaren barruan, kontzertua antolatuko dute biharko, zapatua, gaztetxean. Hain zuzen ere, 22:00etan zabalduko dute gaztetxea, eta 22:30ean hasiko da kontzertua. Elgoibarko Xaribari taldeak joko du lehenengo, eta, horren ondoren, erromeria izango da, Zirkinik Ez taldearekin.



XARIBARI


Altzolako iragana ezagutzeko bisita gidatua antolatu dute domekarako

Pello Arrieta eta Javier Elortza historialariak izango dira bisitaren gidariak

A.A.

Altzolako Auzo Elkarteak antolatuta, Altzola auzoaren iragana ezagutzeko bisita gidatua egingo dute datorren domekan, maiatzaren 10ean. Iraganera egingo dute bisita, beraz, Pello Arrieta eta Javier Elortza historialariek; zehazki esateko, XIV. mendetik XIX. mendera arteko garaira egingo dute atzera. Hizpide izango dituzte, besteak beste, bost mende haietan zehar auzoko ondarearen, arkitekturaren eta eguneroko bizitzaren funtsezko alderdiak izan zirenak.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, Altzolaren iraganari buruzko azken ikerketen emaitzak bertatik bertara ezagutzeko aukera paregabea izango dute saiora joaten direnek, "denek ulertzeko moduko azalpen argi eta zorrotzen bitartez".



Pello Arrieta historialaria, Altzolako maparekin. ASIER ORBEA

Altzolako zubian hasiko dute auzoan barrena egingo duten ibilaldi gidatua, 11:00etan. Ez da izenik eman behar, eta bisita doan izango da.

Ekainean hasiko dira Mintxetako gimnasioa berritzeko lanak

Elgoibarko Udalak Mintxetako gimnasioko hobekuntza-lanen obra lizitaziora atera zuen, 206.760,90 euroan -BEZ gabe, eta Elecnor enpresa izan da aukeratua, 186.073,41 euroko proiektuarekin -BEZ gabe-. Obra horren aurrekontua finantzatzeko, 125.000 euro jarri ditu Danobatgroup taldeak, eta, hain zuzen ere, Udaleko

arduradunek eskerrak eman dizkiote, udalerraren garapenerako inplikazioaren alde erakutsi duen jarreragatik.

Obraren exekuzio-epea bi hilabetekoa da, eta, ondo bidean, ekainaren 22an hasiko dituzte lanak. Epeak betetzen badira, irailerako bukatuko dute obra, eta ikasturte berrirako prest egongo da gimnasio berria.

Gimnasioak 268 metro koadroko azalera du guztira, eta bi eremutan banatuta dago: makinenzako gunea (174 m²) eta kardio-gunea (94 m²).

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA
943 743 704
688 769 657

Jarri ezazu zure publizitatea BARRENA astekarian edo www.barrena.eus webgunean

TERXYPUR®

LAGUNAK
colchonaria textil hogar

1-Stretch ehuna / 2-Polester zuntza
3-Soja natural ez-transgenikoaren biskelastika
4-Polesterena / 5-Ehungintza TB
6-Soja natural ez-transgenikoaren biskelastika
7-Soja natural ez-transgenikoaren Terplus nukleoa
8-Platabanda / 9-Ehungintza TB / 10-Polesterena / 11-Polester zuntza / 12-3d ehun iristagailza

Moldagarria, transpiragarria, termoaldakorra, ergonomikoa, presioaren aurkakoa, alergiaren aurkakoa eta akaroen aurkakoa

San Roke kalea, 20 - ELGOIBAR - 943 744 457 / 685 756 978
www.textillagunak.com

EXPRESS ESKAINTZAK!

LED LG 55UA74006LB.AEU TELEBISTA

349 € **ATG**

- 4K
- SmartTV WEB 25
- HDR 10 Pro
- Ahots bidezko kontrola
- Sound Pro
- 3 HDMI

El Smart TV más inteligente que evoluciona a mejor cada año. 2025

LG webOS UHD AI Ultimate

No-NEW Smart TV 150€
2040 N°1

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487
blreg@miar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

NIRE USTEZ

Euskal festak, Madrilen**IRENE MACAZAGA NUÑEZ**

HIZKUNTZALARIA ETA DOKTOREGO AURREKO IKERTZAILEA

Norberaren kultura goreslea modan dago. Nazioartean, Bad Bunny Puerto Ricori eskaini dio bere azken lana; Quevedok, Kanaria uharteei. Gurera etorrita, ziur dagoeneko bururatu zaizkizuela euskal kulturari lotutako zenbait ekoizpen.

ETS taldeak Madrilen ospatu duen euskal festa hartuko dugu hizpide. Egia esan, erronka izan da niretzat konbinazio hau ulertzea: euskal festa + Madril. Areago, Movistar Arena gehituta ekuazioari. Ez diot euskal kulturak ez duela lekurik Euskal Herritik kanpo, baina uste dut ETSren diskurtsoarekin

kritikoago agertu beharko genukeela.

Goazen euskal festak ospatzera leloaren atzean hamaika galdera ezkututzen dira, eta horien erantzunak ez datoz bat euskal festen ideiarekin. Zein da euskal festen tradizioa? Zein da helburua? Non egin izan dira? Nola finantzatu eta antolatu izan dira?

Zenbait eragilek salatu dute ETSren kontzertua asko

"Ez gara kontziente euskarak ez duela lekurik sistema horretan"

urruntzen dela euskal festetatik: autogestioan oinarritzen den, herri-lana sustatzen duen eta aktibismo politikorako espazio bihurtzen den eredutik, enpresa pribatuek finantzatzen duten, mezu politiko neutro bat duen eta kapitalismoan oinarritzen den negozioira –ikus, gainera, Urangaren iritzia; *Barren*, 1370. zenbakia–.


Badirudi "euskal kultura" entzun, eta azkar ahazten zaigula euskal mainstreamak zer balio sustatzen dituen; eta, are okerrago, ez gara kontziente euskarak ez duela lekurik sistema horretan.

KLIK

Kuku-prakak Karakatera bidean**SAIOA RODRIGUEZ**

ARGAZKILARIA

Karakatera egindako ibilaldi batean ateratako argazkia bidali du Saioa Rodriguezek oraingoan. Sarri joaten da, eta txabola horri beti ateratzen dio argazkia. Honela definitu du irudia: "Uda gerturatzeko dago eta kuku-prakak Karakaterako bidea apaintzen dute, altuera handia hartzen dute. Kasu honetan, ardiaren txabola ikusten da hondoan, zuhaitz eta hosto berdez inguratuta, eta kuku-prakak aurrean".



SEMAFORO

Autoak, bigarren ilaran

"Pista Beltzaren gaineko aparkalekuan autoak bigarren ilaran egoten dira askotan. Tabernara joaten den jendeak sarritan lagatzen du autoa edozein modutan, eta ondo aparkatuta daukagunok zain egon behar izaten dugu autoa atera ahal izateko. Askotan, presaka ibiltzen gara, eta ez da gogo onekoa izaten zain egotea. Aparkalekuak errespetatzea eskatu nahi nuke".

Iturria, konpontzeko

"IMH parean dagoen skate parkeko iturria askotan egoten da hondatuta, eta oso zikina. Oraingoan, bi hilabete baino gehiago daramatza konpondu gabe. Ataskatuta dagoenez, gainera, txakurrek ezin izaten dute urik edan. Eskertuko genuke lehenbailehen konpontzea".



"Toletxegaingo geralekua berritu egin dute, baina ez dute jarlekurik jarri, eta behar-beharrezkoak dira. Jende askok hartzen du trena geralekuan, eta denetarikoa jendea izaten da. Adinekoak asko, eta mugikortasun arazoak dituztenak ere bai. Trenaren zain eserita egon behar duen jende asko ibiltzen da, eta iruditzen zaigu lehenbailehen jarri behar direla eserlekuak".

Bergarako, Mutrikuko eta Iruñeko erraldoiek hartuko dute parte topaketan

Bihar izango da ekimena, 17:00etan hasita, Kalegoen plazan

Ainhoa Andonegi

Erbuze Elgoibarko erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten konpartsak antolatuta, bosgarren urtez egingo dute, bihar, erraldoien topaketa, Kalegoen plazan –euria bada, Sigman–. 17:00etan hasita ikusgai egongo dira erraldoiak, eta, ondoren, kalejira egingo dute.

Aurten, Mutrikuko, Iruñeko eta Bergarako konpartsek hartuko dute parte, Elgoibarkoekin batera.



Iazko topaketa Sigman egin zuten. AINHOA ANDONEGI

Iruñeko konpartsa

Iruñeko Alde Zaharreko Erraldoien Konpartsa 2001ean sortu zuten irabazi-asmorik gabeko Gazte eta Kultura Elkarteak; erraldoi-eramaileek, kiliki-eramaileek eta musikariek osatzen dute. Lau metro pasako lau erraldoi osatzen dute taldea, eta pertsonaiek lau elementu irudikatzen dituzte: lurra, sua, ura eta airea. Erraldoiez gain, lau kiliki ere badituzte: *Napoleon*, *Payaso*, *Pamplonica* eta *Demonio*.

Iaz ere hartu zuten parte Elgoibarko Topaketan.

Bergarako Erraldoi eta Kilikien Konpartsa

2000. urtean Bergaran sortutako taldea da. Lau erraldoirekin hasi zuten ibilbidea, eta gaur egun sei erraldoi handi, zortzi txiki, bi ertain, bi ipotx, sei buruhandi eta lau kiliki dituzte. Ehun bazkideetik gora ditu taldeak. Azkenaldian, sarritan etorri dira Elgoibarrera, eta bi

alditan parte hartu dute Elgoibarko Topaketan; azkenekoz, iaz.

Mutrikuko Konpartsa

Xiri Andonegi artistari eskatu zion Mutrikuko Udalak erraldoiak egiteko, eta euskal mitologiarekin zerikusia zuten irudiak sortzeko baldintza zehaztu zion: *Sorgina*, *Ortzi*, *Mari*, *Akerbeltz* eta lau galtzagorriak egin zituen: *Alper*, *Oker*, *Txotxolo* eta *Txoro*.

Elgoibarko dendetan erostea sustatzeko ginkana abiatu du Txankakua merkatari elkarteak

5.000 euro banatuko dituzte parte hartzen dutenen artean

A.A.

Elgoibarren erosteak saria du izeneko kanpaina jarri du mar txan Txankakua, ginkana era. Honako hau da haren funtzionamendua: Txankakua merkatari elkarteari atxikitako saltokietan kartilla batzuk eskuratu ahal izango dituzte bezeroek, kanpaina indarrean dagoen bitartean, eta hura betetzea izango da haien egitekoa. Horretarako, sei zigilu lortu behar dituzte, sei dendatan erosketak eginda. Behin txartela osatuta dutenean, izen-abizenak eta telefono zenbaki bat gehitu eta Txankakua-ko establezimenduren batean laga beharko dute, zozketan parte hartzeko. Kanpainen parte hartzeko azken eguna maiatzaren 30a izango da.

5.000 euro saritan

Kanpaina bukaerako zozketa ekainaren 2an egingo dute, eta 5.000 euro banatuko di-

tuzte erosketa-txarteletan; hain zuzen ere, 500 euroko bi sari eta 200 euroko hogeitari banatuko dituzte.



Ginkanaren aurkezpeneko argazkia. ASIER ORBEA

Costa Bravara bidaia antolatu du Jubilatuen Biltokiak

A.A.

Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak Katalunia aldera joateko bidaia antolatu du; zehazki, Costa Bravara. Ekainaren 15etik 19ra izango da, eta 510 euro balio du. Autobusez joango dira Elgoibartik, eta lau egunerako gidari turistikoa izango dute. Besteak beste, Girona ezagutzeko bisita gidatu bat egingo dute; Daliren museoa bisitatuko dute, Figueresen, eta Ampuria herrira ere joango dira.

Pentsio osoa

Lloret de Marren hartuko dute ostatu, lau izarreko Gran Hotel



Dali antzoki-museoa.

Flamingo hotelean, mantenu osoan. Hain zuzen ere, jatordu guztiak barne izango dituzte, buffet estiloan, eta ura zein ardoa ere prezioan sartuta daude. Joaneke zein itzulerako egunetako bazkariak bidean egingo dituzte.

Izena emateko, Jubilatuen Biltokira jo behar da, asteleheneetik ostiralera, 11:00etatik 12:00etara.

Bagatuz lanera, heztera, jolastera, eraldatzera

Matrikulazioa 0-1 urte:
Maiatzaren 12tik 22ra
Ate irekiak:
Maiatzak 12, 17:00etan

IKASTOLAK

BAZATUZ?

(Irailen hasteko)

elgoibar@elgoibarikastola.eus
943 744 441

"Herria girotzeko antolatu dugu frontenis txapelketa, udako egitarauaren barruan"

MAITE MENDIKUTE GAZTE ASANBLADAKO KIDEA

Ainara Argoitia MENDARO

Hirugarren urtez jarraian frontenis txapelketa antolatu du Mendaroko Gazte Asanbladak. Maiatzaren 20an hasiko dute, eta finalak uztaillaren 23an jokatuko dituzte, arratsaldean, Santa Ana jaien testuinguruan. **Zer helbururekin antolatu duzue frontenis txapelketa?**

Herrian giroa sortzeko antolatu dugu, udako egitaraua beteago baten barruan. Momentuan ez daukagu egitarau osoaren berri ematerik, ekintza batzuk guztiz lotu gabe dauzkagulako, baina aurreratu diezazuket askotariko ekintzak izango ditugula, hala nola kontzertu akustikoa, mago ikuskizuna, bertso-trama, antzerkia eta gehiago.

Helduen eta nagusien kategoriak bereizi dituzue aurten ere. Zenbat bikotek eman dute izena?

Hala egingo genuela iragarri genuen, baina ez, aldaketak egin ditugu hor. 15 urteko nerabeei aukera eman genien nerabean izena eman edo helduetan, eta bietatik izan dugu. Nerabean, mutilen lau bikotek eta nesken bikote bakarrak eman zuten izena, baina, bikote horien ezaugarriak kontuan hartuta, erabaki dugu helduen kategoriarara pasatzea guztiak. Zera ikusten genuen: izena eman duten bi neskak dezentez gutxiago ibilitakoak zirela frontenisean, gaztetxoagoak ere bazirela, eta, gainera, estreinako aldia zutela plazara irteten zirena jokatzerara. Aldiz, mutiletan, aurten 16 urte beteko dituztenak ere bagenituen izena emanda koetan, eta denak ziren neskak baino dezentez gehiago ibilitakoak frontoian. Desoreka handiegia zegoela iruditu zitzaigun,

eta haiekin hitz eginda hartu genuen erabakia. Iruditzen zaiagu neska nerabeak erosoago eta gusturago arituko direla emakumezkoen txapelketan, eta mutilentzat motibagarriagoa izan daitekeela zaharragoen kontra lehiatzea.

Zenbat bikote izango dira, hortaz, guztira?

Gizonezkoen txapelketan hamai-ka eta emakumezkoetan zortzi. Iazko kopuru antzekoa, beraz. Egia esan, oso gustura gaude parte-hartzearekin, jende berria ere animatu delako aurten. Jakin badakigu jende bati kosta egiten zaiola jendaurrera irtetea, eta horregatik bereziki estimatzen dugu zalantzan ibili diren horiek eman duten pausoa. Ama-alabak eta aita-emeak ere apuntatu zaizkigu aurten, eta hori ere polita da, adin askotarikoak elkarrekin aurkeztea.



Irantzu Agirregabiria, Maite Mendikute eta Maren Fernandez. GAZTE ASANBLADA

Noiz hasiko da txapelketa eta zer egunetan jokatuko dira partiduak?

Maiatzaren 20an hasiko dugu txapelketa, eta dagoeneko pasatu diegu parte-hartzaile guztiei egutegia. Asteazken eta ostegunetan jokatuko dira partiduak, baina beti izaten dira aldaketak, eta aurten ere aurreikuspen hori izan dugu. Beraz, asteazken eta ostegunetan jokatu ezin dutenek ostiraletan jokatzeko aukera izango dute; betiere, bi bikoteak ados jartzen baldin badira. Aldaketa horiek, baina, eurek

adostu behar dituzte beren artean, eta, ondoren, guri jakinarazi. Gainerakoan, aldaketa gutxi izango dira. Izena emandako guztiek egin beharko dituzte epaile lanak, txandaka-txandaka, eta arauak iazko berberak izango dira. Txapelketa ligaxka eran jokatuko dugu. Duela bi urte, partida bakarretara izan zen. Hau da, galdu ahala bazterrerara gelditzen ziren bikoteak, baina iaz erabaki genuen partidu gehiago jokatzeko aukera ematea guztiei, eta eskertu egin zuten haiek.

Itziar Ibarra eta David Hernandez, pintxo-dastaketako irabazleak

A.A.

Mendaroko Udalak pintxo-dastaketa antolatu zuen apirilaren hondarreko astebururako, herriko ostalarien laguntzarekin, eta herritarrek beren mokadu goxoena hautatzeko aukera izan zuten, ohi legez. Lau tabernak propio prestatu zituzten pintxo bereziak dastaketarako, eta taberna bakoitzean kutxa bat

jarri zuten, herritarrek botoa eman ahal izateko. Guztira, 1.112 lagunek bozkatu zuten, eta denen artean bi sari zozkatu zituen Udalak. Itziar Ibarrentzat izan da lehenengo saria, Landa erretegian bi lagunentzako menua, eta David Hernandezek jaso du bigarrena, bi lagunentzako bazkaria Luzaide jatetxean.



Itziar Ibarra eta David Hernandez, nor bere sariarekin. UDALA

Dagoeneko salgai daude Mendi Eguneko bazkaritarako txartelak



Iazko mendi eguneko argazki bat. AINARA ARGOITIA

A.A.

Mendi Eguna antolatu dute Arno guraso elkarteak, Lizarpe Mendi Klubak eta Udalak, elkarlanean, maiatzaren 30erako. Kilimon Trail mendi lasterketaren bi ibilbideak egiteko aukera emango dute. Luzea egin nahi dutenak 07:00etan

abiatuko dira, plazatik, eta motzekoak, 09:30ean. Egun horretarako herri bazkaria ere antolatu dute, eta txartelak dagoeneko salgai daude, Coviran dendan. Helduen txartelak 15 euro balio ditu, eta haurrenak, 10. Txartelak hartzeko azken eguna: maiatzak 25.

Frankismo garaiko kontuak aztergai Arkeosaioak zirkloan



Kristina Pozo Sevilla. SAREA

Arkeologiari eta historiari buruzko hiru hitzaldiko Arkeosaioak zirkloa iritsi da azkenera. EHUK, Suhari Elkarteak eta Udalak antolatu dute zirkloa, eta maiatzaren 14an izango da hirugarren eta azken hitzaldia, udaletxeko udalbatza-aretoan, 18:30ean. Kristina Pozo Sevilla historialaria (Lodosa, 1993) izango da hizlaria, eta *Esparru domestikoa frankismo garaian. Garaiko analisi arkeoetnografikoa* gai hartuta arituko da, euskaraz.



Anestesia taldea, entsegu-lokalean. ANESTESIA



Ezpalak taldeko Juanjo Berasain. EZPALAK



The Lizards hirukotea, zuzenekoan. ALBERTO MORANTE

Rockak, punkak eta metalak bizirik iraungo dute Vertigo Rock ospatzen den bitartean

Maiatzaren 9an, zapatua, doako kontzertuz beteko dira Ermuko kale eta plazak

Ander Gomez ERMUA

Eguerdian hasiko da egitaraua, jaialdiaren nortasuna zein den garbi utziko duten kaleko kontzertuekin. Komentukuan izango dira, baina, euria eginez gero, elizpera lekualdatuko dituzte.

Eibarko Judash taldeak izango du XIX. aldia inauguratzeko pribilegioa. Legarreko estudioetan Walter Tuzzeorekin grabatu zuten disko izenkidea aurkeztuko dute euskal metal klasikoaren ondorengoek. Ostein, Errioxatik etorritako Kraken taldeak hartuko du kaleko eszenatokia.

Talde gaztea den arren, ibilbide luzea dute Estatuko punk-rock jaialdietan, eta, orain, falta zitzaiena ezabatu ahalko dute zerrendatik: Ermuko Vertigo Rock. Bukatutakoan, tiketa eskuratu duten berrogei lagunek plazan bazkalduko dute, antolatzaleekin eta taldekideekin batera.

Arratsaldean, Xabi Ciarsoloren omenez Martxoaren 8a plazan muntatutako eszenatokia estreinatuko du Bilboko Staff taldeak. Kartelego musikari gazteenak dira, eta 90eko hamarkadako

grungearen zertzeladak dituzten doinuekin beteko dute plaza.

Ezinbestek bultzatuta, bertan behera geratu da Dire End taldearen kontzertua. Haien ordez, Galathea taldea arituko da; berri ona screamo eta post-hardcore zaleentzat. Gainera, sorpresa eta kolaborazio bereziak iragarri dituzte euren emanaldian.

Cobra taldea hamar urte atzera izan zen Vertigo Rocken, eta, bost urteko isilunearen ostean, Ciarsolo eszenatokiko azken taldea izango da, azaroan kale-ratutako *Henko* Epa aurkezten.

Haien ostean, kaleko azken kontzertua emango du Konortek: hardcore eta metal erritmo gogorrez beteko du Zubiaurre kalea –euria bada, Euskaldun Berria plaza–.

Gauean, plazako azken kontzertu-sorta irekiko du "rock militante beteranoz" osatutako Ermuko Gem taldeak, 70-80ko hamarkadetako banda mitikoen espiritua taularatuz. The Lizards power trioak Bartzelonako rocka ekarriko du Ermura, eta euskal eszenan rock alternatiboaren erreferente den Ezpalak taldeak plaza astinduko du.

Azkenik, Zarauzko Anestesia taldeak itxiko du kartela. Antolatzaleek gogorarazi dute bigarren edizioan jo zutela, 2008an, eta "izerdi, pogo eta oihuz betetako gau ahaztezina" izan zela. XIX. aldi honetan, historia errepikatzea espero dute.

Egitaraua

Kalean

- 12:30 Judash
- 13:30 Kraken

Orbe Kardinala plazan

- 14:30 Herri bazkaria

Martxoaren 8a plazan

- 16:55 Staff
- 17:55 Dire End
- 19:05 Cobra

Kalean

- 20:05 Konorte

Orbe Kardinala plazan

- 21:00 Gem
- 22:00 The Lizards
- 23:05 Ezpalak
- 00:30 Anestesia

Miren Amurizak jasoko du Ezekiel Etxebarria Saria, 'Pleibak' lanagatik

A.G.


Ezekiel Etxebarria Saria Ermuko Udaleko Euskara Sailak bultzatutako ekimena da, baina irabazlea herriko irakurleen hautuan soilik oinarrituta erabakitzen da: aurreko urtean Udal Liburutegian gehien mailegatutako euskarazko liburuen egilea saritzen da.

XIX. mendean bizi izan zen Ezekiel Etxebarria Ermuko apaiz eta idazle euskaltzalearen omenez izendatu zuten saria, 1996an haren bertso eta lanak abade-etxean topatu ondoren. Gerora, sona handiko hainbat idazlek jaso dute haren izena zeraman garaikurra –Jon Maia, Karmele Jaio, Kirmen Uribe...

eta Joseba Sarrionandia, iaz–. XVIII. aldia ospatzen da aurten, eta 2025ean mailegatutako liburuen erregistroek garbi utzi dute: Miren Amuriza Plaza idazle eta bertsolari berriztarraren bigarren nobelak –*Pleibak*– izan du ermuarren artean arrakastarik handiena.

Ekitaldia, datorren astean

Sariaren helburua ez da egilea omentzea soilik, baita irakurleen eta idazleen arteko lotura indartzea ere. Horregatik, liburu irabazlearen egilea herrira gonbidatzen dute, eta, garaikurra emateaz gain, solasaldi irekia egiten da. Ekitaldia maiatzaren 13an izango



Miren Amuriza idazlea. MIRIAM CARO

da, datorren eguaztenean, 19:00etan, Kaltxango AEK euskaltegian. Bertan izango da Miren Amuriza bera, eta *Pleibak* lanaren inguruan solasean aritzeko aukera izango dute batzen diren herritar guztiek.

Azken hamar urteetako irabazleak

ITURRIA: UDALA

URTEA	LIBURUA	EGILEA
2024	Markos Gimenezoren 101 letrakartel	Joseba Sarrionandia
2023	Ostegunak	Jon Arretxe
2022	Sumendiaren estrategia	Fernando Morillo
2021	Superpatata	Artur Laperla, Esther Lopez Epeldek itzulua
2020	Miñan	Amets Arzallus eta Ibrahima Balde
2019	Indiara Bidaia	Marc Armspach Marko
2018	Musika Airean	Karmele Jaio –bigarren aldiz saritua–
2017	Jara	Jasone Osoro
2016	Arotzaren eskuak	Alberto Ladron Arana
2015	Koaderno Handia	Agota Kristol, Eskarne Mujikak itzulua

"Jokalariei dena emateko esan diegu, eta gu Urrezko Ohorezko Mailaren kostuei aurre egiteko borrokatuko garela"

JASONE IZARRA ERROTABARRIKO PRESIDENTEA

Ander Gomez

Maiatzaren 8an, 9an eta 10ean, Urrezko Ohorezko Mailara igotzeko lehiatuko da Lauko Ermuko Errotabarri. Presidente karguan urtebete ere ez daraman arren, talde nagusiaren igoera fasea biziko du Jasone Izarrak. **Zelan bizi duzu lorpena?**

Pozarren, baina ez dut, inondik inora, nire meritutzat hartzen, jende asko dago honen atzean. Leire Alvarezen lekukoa hartu berri dut, eta hark oraindik zuzendaritzan jarraitzen du, lan pila egiten, gainontzeko kideak bezala. Lorpena guztiona da: laguntzen diguten enpresa eta komertzio txikiena, bereziki inplikaturik dauden familiena, zaleena... eta, nola ez, jokalariena. **Zer moduz ikusi dituzu ligan?**

Nagusi izan dira denboraldi osoan eta erraz irabazi dute, matematikoki txapeldun geratuta liga bukatzeko bost jardunaldiren faltan. Aurrekoan bigarren geratu ginen eta sorpresa izan zen, eta hau jarraipena modukoa izan da. Gainera, fitxaketarik gabe lortu dugu, hori baita gure filosofia: bertako jo-



Jasone Izarra presidentea. A. GOMEZ

kalariekin aritzea eta guztiak berdin tratatzea.

Hori izan da Urrezko Ohorezko Mailarako txartela lortzeko gakoa?

Horietako bat. Talde oso bate-ratua dugu, txikitatik ezagutzen dute elkar eta giro bikaina dago euren artean. Jokoa duten indargune bat aipatzekotan –golez aparte, bestela ez ginatke hemen egongo–, defentsan duten sendotasuna nabarmenduko nuke. **Pontevedrako Cañiza taldeak hartuko ditu etxean Errotabarriren**

multzoko taldeak. Bazegoen Ermua egoitza izateko aukerarik?

Ez. Zaila litzateke, egin beharreko inbertsio ekonomikoagatik bakarrik. 17.000 eurotik gorako puja irabazi beharko genuke, eta azpiegiturari dago-kionez ere Udal Kirolegia txiki geratuko litzateke, seguru aski... Pozik egingo dugu Galiziarako bidaia.

Nola egingo duzue bidaia hori?

Autobusean eta denbora larregi barik, lanegun bakarra galtzeko. Azkenean, maila altu honetan egon arren, ez da futbolearen bezala; jokalaria lanean, praktikan edo ikasketekin daude, eta egiten duten esfortzu guztia baloratzea da benetan.

Jokalarientzako barbarik igoera fasea jokatu aurretik?

Disfruta dezatela. Batik bat, ziur nagoelako disfrutatuz gero irabazi egingo dutela.

Igoera lortuz gero, zein izango da erronkarik handiena?

Finantzaketa. Mailaz igotzeak milaka euro gehiagoko aurrekontua eskatzen du, partidak urrunago izango dira; Cartage-nan, Sevillan edota Kanarrietan

izan daitezke. Gure asmoa da jokalaria berekin jarraitzea, fitxaketarik gabe, baina, hala eta guztiz ere, gastu operatiboari aurre egin behar zaie.

Eta dirurik lortu ezean, zer?

Gure muga argia da: ez dugu kluba hipotekatuko. Igoera lortu baina beharrezko aurrekontua biltzen ez badugu, Zilarrezko Ohorezko Mailan jarraituko dugu. Gure lehentasuna Ermuko neskek eskubaloian jokatzeko jarraitzea da, oinarri sendo batekin. Dena den, jokalariei esan diegu dena emateko kantxan, guk medio guztiak agortuko ditugula beharrezko dena lortzeko.

Igoera bulegoetan ere borrokatu beharko da, beraz.

Bai. Udala beti egon da laguntzeko prest, baina ez da justua dena diru publikoaren mende uztea; herrian badaude finantzaketa behar duten beste talde eta elkarte asko ere. Ermuko tabernari eta dendariak eta Lauko, Egui, Apalategui enpresek egiten dituzten aporazioei esker heldu gara honaino, eta hori da bidea. Eskualdean industria potentia dago, eta gustatuko litzaiguke bertako enpresa gehiagoren babesa izatea, laguntzaile-sare hori handitzea.

Zaleei esatekorik baduzu...

Badakigu batzuk Galiziara etorriko direla, baina ezin dutenei gogorarazi nahi diegu partidak online ikusteko aukera egongo dela. Gure sare sozialak jarraitu ditzakete, eta bertatik zabalduko ditugu zuzeneko estekak.

Matx desafioan parte hartu duen Bizkaiko lehen taldea izan da Errotabarri



Matx desafioen grabaketan. BARRENA

Tokiko kirolean espezializatutako euskarazko lehen sare soziala da Matx. Informatuz, entrenituz eta parte-hartzea sustatuz, kirol komunitate aktiboa biltzea du helburu. Bederatzi komunikabidek osatutako erredakzioa dauka –horien artean, BARRENA–, eta kirol entrenimenduan oinarrituriko ikus-entzunezko *ganberroak* ekoizten dituzte: desafioak, inkestak kirol ekitaldietan, elkarrizketak... Gipuzkoan zentratu dira, gerora lurralde guztietara hedatzeko asmoarekin. Bada, Errotabarri hasi du bidea: parte hartu duen Bizkaiko lehen taldea izan da.

Desafioekin ausartu dira talde nagusiko neskek. Julene Bouzok eta Jone Erauskinek ederto pasa dute klubaren inguruko galderak erantzuten, presidentearen abizena ahazteak burukomina bat edo beste eragin dien arren. Maren Unanuek eta Alaitz Malaxechevarriak –taldekideen laguntza apur batekin– galdera azkarren testa gaintzea lortu dute; eta Nahia Legorburuk liburu, film eta abesti banaren gomendioak bota ditu, azkenarekin talde osoa dantzan jarrita. Bukatzeko, abilezia jokoan lehiatu dira taldean, globoak airean harrapatzen saiatuz, eta, agian, erreflexuak gehiago landu behar dituztela ohartu dira.

Bideoak *Matx.eus*-en ikus daitezke, eta taldeko kideek profila sortzeko gonbita egin diete ermuarrei: "Osatu dezagun guztion artean euskarazko kirol komunitate polit bezain sendoa".

Gazte mailako Errotabarri, Espainiako TOP-8rako sailkatuta



IÑIGO ERAUSKIN

Zaragozan jokatu zen Espainiako Sektoreetako Txapelketa, eta Ermuko taldeak Zaragozako La Jota, Iruñeko Anaitasuna eta Asturiasko Siero izan zituen aurkari. Errotabarri izan zen garaile, eta maiatzaren 15ean, 16an eta 17an Estatuko zortzi talde indartsuenekin lehiatuko da. Txapeldunei harrera egiteko eurria ez zen oztopo izan,

eta biba eta txalo artean hartu zituzten herritarrek; besarkadaz, malkoz eta une hunkigarritz bete zen Kaltxangoko plaza.

Bestalde, kadeteak ere gorako bidean doaz. Euskadiko lau finala jokatu dute eta laugarren geratu dira. Orain, Espainiako Sektore Fasea jokatu dute, maiatzaren 21ean, 22an, 23an eta 24an.

'Inperialismoa eta erresistentzia Trumpen aroan' hitzaldi-zikloa antolatu du KI Ermuak

Joan den astean egin zen lehena; datorren eguaztenean hurrengoa, Eskilarapekon

Ander Gomez ERMUA

Ermuko Komite Internazionalistak hitzaldi-zikloa antolatu du maiatzerako; Donald Trump gobernura iritsi zenetik AEBek mundu mailan sustatu dituzten aldaketak aztertuko dituzte. Azaldu dutenez, azken hamarkadetan izan duten nagusitasun ekonomiko eta politikoa mantentzeko ahaleginetan, esku-hartze militarra, hertsadura ekonomikoa eta gerra "etengabe praktika" bihurtu dira, guztia "baliabide naturalen, energiaren, lurraldeen eta hegemonia estrategikoaren kontrola lortzeko".

Hiru hitzalditan banatu dute zikloa: lehena, ikuspegi globalakoa; eta Asia mendebaldean eta Venezuelaren zentratuak besteak.

Munduko ordena, krisia eta erresistentzia lehen hitzaldian

Joan den asteko eguaztenean egin zuten lehen saioa. Latinoamerikako Multinazionalen Behatoki Juan Hernandez eta Gonzalo Fernandez aritu ziren hizlari, eta mundu-mailako joera ekonomiko, ekologiko eta geopolitiko nagusiak aztertu zituzten. KI Ermuakoek azaldu dutenez, "nazioarteko ordenaren



Zikloko lehen hitzaldiak jendez bete zuten Lobianoko aretoa. K.I.

desegitearen pertzepzioaren atzean dauden arrazoi estrukturalak ulertzea" eta "indarkeria eta gerra politika globalaren oinarri bihurtzen ari direla ikustea" zuten helburu saio harekin.

Halaber, giza eskubideak babesteko nazioarteko sistemaren krisiaz eta egungo "kaos" geopolitikoaz jardun zuten; eta, bukatzeko, gerra "inperialekin" lotuta sortzen ari diren erresistentzia mugimenduen eta herrien rola aztertu zuten; hain zuzen, "behetik eraikitako geostrategia alternatibo bat" planteatu zuten.

AEBen eta Asia mendebaldearen arteko tentsioak bigarrean

Datorren astean, Asier Blas EHUko Zientzia Politikotako irakaslea izango da Ermuan, eta AEBen ahultze geopolitikoa eta Asia mendebaldeko gatazken hedapena aztertuko ditu. Iranen, Israelen eta AEBen arteko tentsioak izango ditu hizpide, eta horiek eragiten duten igotze militarra eta nazioarteko zuzenbidearen higadura. Testuinguru horretan kokatuko du Gazan gertatzen ari den egoera, mendebaldeko potentzien babes politikoa eta militar "esplizituarekin" garatzen ari

dena, eta horrek eskualdean zein munduan duen eragina.

Hitzaldia maiatzaren 13an izango da, 19:00etan, Eskilarapeko Ateneoan.

Venezuelaren egoera hirugarrenean

Maiatz bukaeran, Glenna Cabello -Venezuelak Bilbon duen kontsula- elkarrizketatuko dute. Venezuelaren egungo egoera politikoa, ekonomiko eta soziala aztertu nahi dutela azaldu dute, AEBen esku-hartze politikoa eta militarrekin batera. Adierazi dutenez, "Donald Trumpek agindutako erasoak, Nicolas Maduro presidentea atxilotzea barne, arrakala arriskutsu bat ireki du nazioarteko ordenan, eta aldebakarreko esku-hartze inperialistarako itzulera agerian utzi".

Elkarrizketa maiatzaren 27an egingo dute, 19:00etan, Lobianoko ikus-entzunezkoen gelan.

"Garrantzitsua da testuinguru geopolitikoa modu kritikoan aztertzea"

Antolatzaileek geratzen diren hitzorduetan parte hartzera gonbidatu dituzte ermuarrak. Garrantzitsutzat jotzen dute egungo testuinguru geopolitikoa "modu kritikoan" aztertzea, eta beharrezko ikusten dute nazioarteko ordenaren egiturazko krisia, gatazka armatuen normalizazioa eta giza eskubideen urraketan arriskua ikuspegi "kolektibo eta hausnartutik" lantzea.

'Desobedienteak 18/98' antzezlanak aurkeztuko dute gaur Antzokian

Tantaka Teatroak *Desobedienteak 18/98* euskarazko antzezlan eskainiko du gaur, barikua, 20:30ean. 85 minutu irauten du, eta sarrerak 10 euroan egongo dira Antzokiko leihatilan.

Obra 18/98 sumario polemikoa du ardatz, eta desobedientzia zibilaren inguruan hausnartzen du. Ainhoa izeneko pertsonaiaren doktore-tesiaren defentsaren bidez, eskubide zibilen historian desobedientziak izan duen garrantzia aztertzen da. Aldi berean, auzi hartan auzipetutako biziaren eta ahotsak berreskuratzen ditu, eta zalantzak eta entzun gabe geratutako kontakizunak mahai gainean jarri.



TANTAKA

"Historiatik ezabatutako Ermuko eta Mallabiko emakume erraketistak ezagutu ahal izango dituzte gazteenek"

ESTIBALITZ GONZALEZ IRAKASLEA

A.G.

Maiatzean zehar, bertako emakume erraketisten gaineko hitzaldiak egingo ditu Estibalitz Gonzalezek Ermuko eta Mallabiko ikastetxeetan.

Zein helburu dute hitzaldiak?

Saio horiekin ahaleginduko gara kirol eta historia mailan dugun aberastasun handienetako bati balioa ematen: sarritan ahaztuak izan diren gure herrietako emakume erraketistei.

Nondik sortu da ideia?

Iturburua Charo de Cruz izan da. Elkarrizketa bat egin nion

aspaldi, eta harreman berezia sortu zen. Orain bi hilabete deitu zidan esanez herentzian lagako zizkidala haren erraketak, nik nahi nuen lekuan jartzeko. Hitzaldien aurretik, Ermuko denda batean jarri genituen, herri osoak ikus zitzan. Orduan, lagun batek esan zidan: "Hau gure gazteek jakin behar dute, institutukoekin kontatu behar diezu". Eta ilusio handiz ekin nion hau guztia prestatzeari.

Non eta zein mailatan egingo dituzu?



Ermua BHIko hitzaldian. AMAIA REMENTERIA

Ermuko Institutuan lehen eta laugarren mailetakoko ikasleekin egongo naiz. Bi hitzaldi egin ditugu jada, eta datozen asteetan nagusiei zuzendutakoak izango dira. Polita izan da, justu erraketisten gaineko proiektu bat

lantzen ari direla esan zidatelako. Ermuarekin bukatutakoan, Mallabiko Learreta-Markina eskolan egingo dugu; kasu horretan, hirugarren ziklokoekin.

Zer aurkituko dute ikasleek?

Datu dezente eta zertzelada asko. Ez da nire asmoa guztia azaltzea, ezinezkoa delako, baina bai bakoitzarengan zerbait interesgarria piztea. Hasierako zatia orokorra izango da, eta muina herri bakoitzera egokitutakoa, tokiko erraketisten istorioekin.

Zer mezurekin geratzea gustatuko litzazuke?

Etxera joaten direnean, nahi dit kontziente izatea gure herrietako eta Euskal Herriko ehunka emakume egin zuten balentriaz. Historiatik ezabatuak izan ziren, baina hitzaldiek haiek gertutik ezagutzeko aukera ematea espero dut.

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen

RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK
Valdespina Markesa 16 · ERMUA
605 71 10 81

"Kritika sozial berberak jorratzen ditugu lan berrian, gizartearen arazoak berberak direlako"

ANDONI ARREGI RODRIGUEZ
AIAMA TALDEKO ABESLARIA

Kalean da Mallabiko eta Ermuko punk-oi! taldearen EP berria, 'Kontu berbera', bi kantuz osatua; hilaren 23an aurkeztuko dute, zuzenean, Ermuko Gazte Egunean

Ander Gomez

Andoni Arregi da abeslaria eta kanten idazlea, baina, mallabitarrek zehaztu duenez, lokalean taldekideen parte-hartzearekin hartzen dute forma Aiamaren abestiek. Maiatzaren 2an kaleratu zituzten azken biak: *Alkohol itsasotan* eta *Praedictum bellum*; lehena, bideoklip eta guzti.

Zer harrera izan dute kantuek?

Momentuz, ez gara ikustaldiei erreparatzen hasi, lagunen hitzak bakarrik dauzkagu. Beti bezala, onak izan dira, eta horrek aurrera jarraitzeko gogoia ematen du. Iaz kaleratutako *Amodioz eta indarrez* diskoarekin lortutakoa izugarria izan da, eta hori hobetzea gustatuko litzaiguke: 10.000 ikustaldira heldu dira kantuak eta hamar kontzertutik gora eman ditugu urte erdian. Dena den, emaitza hori bera lortuz gero ere, gu pozik.

Azken disko hori luzea zen. Zergatik egin duzue formatu laburraren aldeko apustua?

Justu horrexegatik. Pentsatu genuen aurreko diskoa ez zela oso zaharra eta pare bat abestiko lana egitea aukera egokiena zela. Urte bukaerara begira beste bilduma bat planteatu genuen, baina, momentuz, bere horretan laga dugu. Lan txukuna atera da, eta ez dugu beste ezer kaleratzeko asmorik.

Ba al dago loturirik bi kantuen artean?

Bata pertsonalagoa da; egungo gazte askok duten arazoan zen-

tratzen da: jaiak, festak, taberna sarri bisitatzea... eta alkoholarekin errealitateko arazoetatik ihes egiten saiatzea. Besteak mundu mailako ikuspegia du: gerrak, politikariak... Albumaren izenak lotzen ditu, batik bat. Azken finean, lehen diskoa atera genuenean landu genituen gaiak dira; gizartearen kritika sozial berberak jorratzen ditugu lan berrian, gizartearen arazoak berberak direlako.

Bigarren kantua latinez izendatu duzue. Zergatik?

Ez genekien zer izenburu jarri. Antzerako tituluak bururatzen zaizkigu beti, ez gara oso originalak kontu horretan... Behin, lokalean geundela, imaginazio pixka bat etorri zitzaigun, latinez jartzeko ideia irten zen eta aurrera egin genuen horrekin.

Hitzen gaiak ez dira aldatu. Soinua?

Soinua bai. Lehen diskoa, *Altxatu dezagun ahotsa* (2024), eta iazko otsailean kaleratutako *Zuekin* single-a lokalean grabatu genituen, modu *kutre* samarrean. *Amodioz eta indarrez* uztailean argitaratu genuen, gure lehen kontaktua estudioa-

"Hitzen gaiak ez dira aldatu, baina soinua sakonago landu eta detaileak zaintzeko tartea hartu dugu"



Besoa igeltsatuta zeukala aritu zen Arregi aurreko diskoaren aurkezpen-kontzertuan, Ermuko Txosnagunean. AIAMA

rekin. Lorentzo Records-en izan zen, eta oraingoan ere bertan egin dugu.

Zergatik erabaki duzue erreplikaztea?

Grabatzerakoan konfiantza hartu genuen eta emaitza gustatu egin zitzaigun. Gainera, Berrizen dago, gertukoa da, eta gu ez gara urrunera joatekoak, etxekoekin lan egitea gustatzen zaigu.

Emaitza berdintsua bilatu duzue ala gehiago esperimintatzeko tartea hartu?

Disko luzea oso denbora gutxian egin genuen, aste bakarrean, presaka. Honetan soinua sakonago landu eta detaileak zaintzeko tartea hartu dugu: gitarrak zelan sartu, edizioan guztiak hobeto bat egin dezan, koruak landu...

Aurrekoan kolaborazioak izan zenuzuten; oraingoan ere artistaren edo lagunen batek parte hartu du musikan edota koruetan?

"Ez dago lana estreinatzeko modu hoberik gure jendearekin batera ospatuta baino"

Bakarrik egon gara; horixe erabaki genuen hasieratik. Lagunak musikaz aparteko artean izan ditugu, *Alkohol itsasotan* kantuen bideoklipetan eta albumaren diseinuan. Bideoa Maddi Goikoetxearekin grabatu dugu, eta Oier Beitiaren laguntza izan dugu protagonista moduan. Brometan proposatu genion, hark brometan onartu, eta, egia esan, bikain aritu da, ez da igartzen aktorea ez denik; kar-kar.



Oier Beitia, *Alkohol itsasotan* kantuen bideoklipen protagonista. AIAMA



Alkohol itsasotan kantuen bideoklipa ikusteko, eskaneatu QR kode hau.

Zuen lehen bideoklipa izan da, ezta? Zer moduz esperientzia?

Bi egunetan grabatu genuen, eta oso ondo irten da, pozik gaudela. Tabernako hartualdiak Ermuko Infreñu tabernan grabatu genituen; beste guztia, Deban eta Itxaspeko flyscean. Goikoe-txeaz eta Beitiaren gain, lagun ugari ere izan ditugu estra lanetan. Zerbait egitekotan, garbi genuen Mallabiko eta Ermuko jendearekin egin nahi genuela. **Albumaren artea zeinek egin du?** Azalak ere Maddi Goikoetxearen obra dira. Pentsatu genuen berri-zaile samarra izatea; taldeek azal bakarrik egin ohi dute, eta guk, orokorraz gain, kantu bakoitza identifikatuko zuen ilustrazioa sortzea pentsatu genuen. Goikoe-txeari buruan geneukana planteatu genion, eta paperera pasatzeko askatasun osoa eman. Erakutsi zigun lehen diseinua, gustatu egin zitzaigun, eta horrekin geratu ginela.

Formatu fisikoan salduko da ala plataformetan bakarrik?

Plataformetan bakarrik. Bi kantu izanda, ez genion zentzu handirik ikusi fisikoki ateratzeari.

... eta, halako diseinuak izanda, merchandising-ik egongo da?

Bai; justu horretan dihardugu orain. Kamisetak izango dira, eta espero dugu Ermuko Gazte Egunean emango dugun kontzerturako prest egotea.

Hori izango da EP berriaren aurkezpen-kontzertua?

Bai; maiatzaren 23an. Han joko ditugu bi kantuak aurrenekoz. *Amodioz eta indarrez* diskoa Ermuko txosnagunean aurkezteko aukera izan genuen, eta guretzat ez dago modu hoberik lan bat estreinatzeko gure jendearekin batera ospatuta baino.



Maddi Goikoetxeak diseinatutako *Praedictum bellum* kantuen azala. AIAMA



Praedictum bellum kantua entzuteko, eskaneatu QR kode hau.

Auzoetan ari da lanean herria txukuntzeko Udalak kontratatutako lantaldea

Lau egunez kalean lan egiten dute eta astean behin formazioa jasotzen dute

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Otsailaren 24az gero, hamabi peoi balioaniztun herria txukuntzeko lanak egiten dabilta. Guztiak daude Soraluze erroldatuta, eta sei hilabeterako hartu dituzte, %75eko kontratuarekin. Epe horretan, 110 orduko formakuntza ere jasoko dute. Uztailaren amaierara arte segituko dute lanean; izan ere, oporrak tarteko, irailean bukatuko zaie kontratua.

Soraluzeko Udalak kontratatu ditu langileok, Lanbideren *LARK 2025-2026* programatik kalteberatasun edo bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egindako deialdiaren baitan.

Auzoka lanean

Ibili dira eta ibiliko dira barandak garbitzen eta margotzen, kaleko jarlekuak zaharberritzen, geltoki, igogailu eta, oro har, bestelako azpiegitura eta kale-altzariak txukuntzen. Arkaitz Arana udal brigadako buruaren gidaritzapean dihardute lanean: "Orain arte, garbiketa eta margotze lanak egin ditugu, batik bat, eta, iturriren bat ere konpondu dugu. Gehienbat, auzoetan gabiltza lanean, auzoka. Errekalde auzoan ibili gara, eta Txurrukenen ere bai; hango parkea, adibidez, Udaneren muralarekin batera bukatu genuen. Orain, berriz, Ezozibidengabiltza".

Denboran irauteko

Aranak gaineratu duenez, kontratua bukatu arte bide beretik segituko dute. "Orain, beste iturri pare bat ditugu konpontzeko, haien harguneetan; euri-uren kanal batzuk garbitzeko ere baditugu, eta segituko dugu barandak margotzen, parkeak txukuntzen, jarlekuak margotzen, markesinak konpontzen eta txukuntzen, panel informatiboak txukuntzen, aparkalekuen marraz berriro margotzen eta bestelakoak egiten. Baranden kasuan, adibidez, lehenengo, garbitu egiten ditugu, eta gero, margotu, grisez, egiten den lana irauteko izan dadin".



Ezozibidean hainbat lan egiten, martitzenean. U.M.Z.



Peoien lantaldea formazioa jasotzen, astelehenean. U.M.Z.

Astean behin formazioa

Asteko lau egunetan egiten dute kaleko lana. Astelehenean, berriz, formazioa jasotzen dute. Kalebarren 8ko lokalean astelehenero izaten dute lau orduko saioa, Zabaltzen-Sartu Kooperatibako Laura Agudiña orientatzailearen eskutik. Laneratzeko zeharkako edukiei eta arlo profesionaleko ezagupenei buruzko saioak dira. Agudiñak emandako xehetasunen arabera, curriculumak zelan egin, lan-merkatuari buruzko ezagutza, orien-

tazio pertsonalizatua eta beste ari dira lantzen.

Bigarren aldia

Soraluzeko Udalak 2025ean parte hartu zuen lehen aldiz Lanbideren *LARK 2025-2026* programan eta *HERRILAN2* proiektuan. Iaz, zortzi peoi kontratatu zituen; aurten, berriz, hamabi. "Iaz, batik bat, erdiguneko guneak eta esparruak txukundu zituzten. Jende oso desberdina da iazkotik aurtengora. Baina igartzen da iaz egindako lana. Iaz egindako zatiak aurten ez gabiltza ukitzen. Iaz, bereziki, Zubi Nagusian egin ziren lan nahiko, eta pasoko barandetan ere bai. Aurten, igartzen da inguru hark ez duela beharrik. Beraz, aurten, iaz egin ez ziren lanak egiten gabiltza", esplikatu du Aranak.

Iaz txukundutako guneek txukun segitzen dute; horri esker, auzoetan dabilta aurten



Danborradaren antolaketa taldeko hainbat kide, martitzenean. U.M.Z.

Deialdia egin berritan, 50 lagunek eman dute izena danborradarako

U.M.Z. SORALUZE

Domekan, maiatzak 3, jakinarazi zuten zabalik dagoela aurtengo danborradan izena emateko epea, eta apenas bi egunetan 50 herritar apuntatu ziren. Antolatzaileen esanetan, jendea galdezka zuten ordurako. Aurtengo danborrada uztailaren 25eko gauean egingo dute.

Entseguak, ekainean

Izena emateko hainbat bide jarri dituzte. Izen-emate orriak, adibidez, Iratxo goxo-dendan eta Bolia taberna daude eskura; bestalde, Instagrameko QR kodea baliatuta ere eman daiteke izena, eta *Barrena.eus* atarian dagoen formularioa beteta ere bai.

Izena emateko orduan adierazi behar da zelan parte hartu nahi den danborradan. Halaber, jakinarazi dute entseguak ekainaren erdialdean hasiko direla eta ohartarazi dute danborrak zein barrilak jotzeko beharrezkoa dela entseguetara joatea.

Danborradan parte hartzeko gutxienero adina 14 urte da; danborren eta barrilen kasuan, 16 urte; eta kanoien eta zaldi-gaineko kantineren kasuan, 18 urte.

Danborradako antolatzaile taldea urte hasiera ezkerorabil aurtengoa prestatzen, "aurreratu daitezkeen lanak egiten", esan dutenez; adibidez, zaldiak enkargatzen, arropak ikuskatzen eta abar.

Aurretiazko borondateen bigarren saioa, ekainean

Aurretiazko borondateak zer diren azaldu eta haiek izapidetzeko bigarren hitzaldi-informatiboak antolatu dituzte. Ekainaren 1ean izango da lehena eta ekainaren 15ean, bigarrena. Izen-ematea zabalik dago; hain zuzen ere, udaletxeko harreraren eman daiteke izena. Lehen saioan, adibidez, gaiari buruzko informazioa emango dute, eta bigarrenean, aurretiazko borondateen dokumentuak izapidetzeko aukera izango da.

Debabarreneko ESiko profesionalek ematen dituzte saioak. Aste honetan ere izan da beste bat, eta beteta egon da. Ekimena Soraluzeko Nagusien Kontseiluak antolatu du.

Haurren emozioak langai Apellanizen hitzaldian

Datorren egunean, maiatzaren 14an, *Haurren emozioen bidelagun* hitzaldia izango da Kalebarren 8ko lokalean, 17:30ean. Haurrekin eta nerabeekin lan egiten duen terapeuta emozional sistemikoa den Donna Apellaniz Nietok egingo du. Oro har, seme-alaben emozioak kudeatzeko eta zaintzeko kontuan izan beharrezkoa landuko da, familiaren osasun emozionala zaintzeko tresna simple eta eraginkorrak eskuratzeko.

Katamarran ume-txokoak Soraluzeko Haurreskolarekin elkarlanean antolatutako hitzaldia da, sarrera libre da eta ez dago aldezturik izena eman beharrik.

Puntu bakarra eskuratzea nahikoa du Sorak Gorengo Mailara igotzeko

Hiru partidu geratzen dira fasea bukatzeko; bihar, zapatua, Zumarragan jokatuko dute

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Igoera fasea bukatzeko hiru partiduren faltan, bihar, zapatua, Sorako Erregional Mailako taldeak 18:00etan jokatuko du hamahirugarren jardunaldiko norgehiagoka, Zumarragako Argixao futbol zelaian. Urola Kirol Elkarteko B taldea izango du aurrez aurre, eta indartsu zelairatuko dira Sorako mutilak, etxeko lanak ondo eginda.

Lehen laurak igoko dira

Izan ere, 0-4 irabazi zuten joan den asteburuan Irungo Landetxa taldearen kontrako norgehiagokan; hura ere kanpoan, gainera. Horri esker, sailkapeneko lidergoa sendotzeaz aparte, dagoeneko 30 puntu dituzte batuta.

Sailkapeneko lehen lau ekipoak igoko dira Gorengo Mailara datorren denboraldian. Liga bukatzeko hiru partiduren faltan, bederatzi puntu daude jokoan eta sailkapeneko bosgarrena – Donostiako Arrupe – zortzi puntura dauka Sorak. Hori horrela, etxekoek nahikoa dute biharko partidua berdinduta puntu bat eskuratzea Gorengo Mailarako igoera ziurtatzeko.

Lehen sailkatu izan nahi

Sorako talde nagusiko entrenatzaile Iokin Arrillagak konfiantza handia dauka taldearengan, eta uste du ondo joango dela Urolaren kontrako norgehiagokan: "Ez daukat dudarik, gure gauzak ondo egiten baditugu eta partidua guk nahi dugun no-



Sorako talde nagusia, etxean jokatutako azken partiduan, apirilaren 25ean. U.M.Z.

rabidea hartzen badu, asko egin da daukagu". Hala ere, partidua jokatu beharra dago, eta ez dute kontrarioa ezagutzen, denboraldi honetan ez baitute Urola Kirol Elkarteko B taldearen kontra jokatu. Hura sailkapenean hamahirugarren doa.

Edozein kasutan, zapatuan zein igoera fasea bukatzeko falta diren gainontzeko partiduetan ere dena ematera irtengo dira, orain arte bezala. Zera esan du Arrillagak: "Helburua da geratzen diren partidua irabaztea, liga irabaztea eta lehen sailkatu moduan mailaz igotzea".

Fase bikaina

Urtarrilean hasi zuen Sorak igoera fasea, eta bikain ari da. Haren multzoko bakarra da partidu bat bera ere galdu ez duena: hamabitik bederatzi irabazi egin ditu, 30 gol ditu alde eta sei ba-

karrik aurka. Iokin Arrillaga entrenatzaileak sarri adierazi du pozik dagoela ekipoa egiten ari den lanarekin. Aurreko asteburukoaren ondoren, oso pozik dagoela esan du: "Espero nuena baino askoz hobeto egiten ari gara gauzak".

Oro har, partidua irabazteko asmoarekin prestatzen dituzte, eta arreta berezia jarri dute kanpoko hitzorduetan, hasieratik argi izan baitute igoera fasean inportanteena zela etxetik kanpo ez galtzea. Eta halaxe egin dute, Arrillagak berak nabarmendu duenez, etxetik kanpo etxean baino emaitza hobek eskuratuta. Igoera fasearen amaieran, bi partidu dituzte etxetik kanpo eta bakarra etxean. Hori maiatzaren 16an izango da, eta gaur egun sailkapeneko bigarren den Ikasberri izango dute aurrez aurre.

Berritasunekin dator gaur, barikua, hasiko den areto-futbol txapelketa

U.M.Z. SORALUZE

Gaur, barikua, hasiko da aurten go areto-futbol txapelketa. Hamalau taldek eman dute izena. Haien artean, urteetan diharduten ekipo klasikoekin batera hiru berri ere badira: bata, gazteenek osatutakoa, Manchester Pity; eta besteak, kanpoko eta Soraluzeko lagunekin osatutako Balsiqueñas eta Marokoarrak Gara.

Asteburuetan jokatuko dituzte partidua, Araneke frontoian: barikuetan, 19:30ean hasita, eta zapatuetan, 20:30ean hasita, hiruna partidu egun bakoitzeko.

Ligaxka bakarra

Aurten, berritasunekin dator txapelketa. Batetik, antolatzaileek

laga egin dute eta berriek hartu dute gidaritzia. Halaber, aldaketa horrek beste bat ere ekarri du: orain arte jokatzen ziren Liga eta Kopa barik, aurten ligaxka bakarra izango da. Hamalau ekipoak zazpiko bi multzotan banatu, eta zazpi jardunalditan elkarren kontra jokatuko dute. Gero, ekipo bakoitzaren sailkapenaren arabera, multzo bien arteko lehiak izango dira final zortzirenetatik aurrera. Eta lehen postuak erabakitzeke partidua jaietako txupinazo egunean jokatuko dira: txupinazoaren aurretik, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeke partidua; eta txupinazoaren ondoren, lehenengoaren eta bigarrenengoaren artekoa.

Bihar, 'seven' modalitateko errugbi partidua, Ezozin

Bihar eguerdian, zapatua, errugbiak hartuko du Ezoziko zelaia, ezohiko modalitate batekin, gainera: 12:30ean hasita, *Rugby 7s* edo *Seven a side* modalitateko partidua jokatuko dituzte Debarroa, Gaztedi Rugby Taldea (Gasteiz) eta Zarautz Beltzak taldeek. Bestela esanda, ekipo bakoitzak hamabost jokalariz beharrean zazpi jokalariz osatuta jokatuko du.

Enekoitz Igartua SoraGazteak Rugby Klubeko ordezkariak esan duenez, bihar Soraluzera etorriko den talde bakoitzak ekipo bat baino gehiago osatzeko beste jokalaririk ekarriko ditu; beraz, guztira, bospasei partida jokatuko dituzte Ezoziko zelaian.

Hamalau borroka boxeo jaialdian; tartean, Euskadiko finalerdiak

Bihar, zapatua, 16:30ean egingo dute boxeo festarako pisatze-saioa, Araneke kiroldegian bertan. Eta ondoren, 17:30ean zabalduko dituzte ateak, 18:00etan hasiko baita ikuskizuna.

Hamalau borroka izango dira: zazpitan Euskadiko finalerdiak jokatuko dituzte eta beste zazpiak jaialdirako propio ekarritakoak izango dira. Azken horien artean, adibidez, Soraboxeko bost boxeolari borrokatuko dira: Wassim Ber, Aaron Santana, Asier Cuadra, Jokin Merino eta Billal Ben.

Soraboxeko Ixa Rodriguezek dioenez, "ondo" doa sarrera-salmenta, eta, beste jaialdi batzuetakoa aintzat hartuta, seguru bete egingo direla harmailak.

2-1eko aldearekin jokatuko dituzte bueltako partidua, domekan

U.M.Z. SORALUZE

Etzi, domeka, Gipuzkoako Herriarteko Gomazko Paletako Txapelketako itzulerakoa jokatuko dute Soraluzeko Pilota Elkarteko ordezkariak, Hernaniko pilotarien kontra. Joanekean moduan, oraingo honetan ere hiru partidu jokatuko dituzte: bat banaka kantxa osoan, bi banaka kantxa osoan eta azkena

banaka zazpiaren barruan, hain zuzen ere.

11:00etan hasiko dira partidak, Araneke frontoian.

Finala, ekainean

Soraluzetik, Julen Gallastegi, Antxon Gisasola, Aitor Atxotegi eta Jurgi Rascon lehiatuko dira. 2-1eko aldearekin kantxaratuko dira etxekoak, Hernanin

banakako biak irabazi egin baitzituzten eta binakakoa, berriz, galdu.

Domekan jokatuko dituzten partidak txapelketako final-hamaseirenak izango dira. Hori horrela, etxekoak sailkatuz gero, final zortzirenetarako sailkatuko dira eta Zumaiaren kontra jokatuko dute hurrengo fasea, maiatzaren 17an joanekoa eta 24an itzulerakoa.

Gipuzkoako Herriarteko Gomazko Paleta Txapelketaren finala, berriz, ekainaren 28an jokatuko da.



Julen Gallastegi, Antxon Gisasola, Aitor Atxotegi eta Jurgi Rascon Hernanin. ATXOTEGI

"Momentu atsegin bat pasatzeko aukera" Aitor Huergo kantautorearekin, Asigorren

Josu Salegi saxofoi-jotzailea eta Adrian Larrañaga perkusio-jotzailea ere izango dira

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Gaur, barikua, folkloarearen sus-traiak kantagintza propioarekin uztartzen dituen Aitor Huergo (Bilbo, 1977) euskal abeslari eta konpositoreak kontzertua eman-ko du Asigor tabernan. 20:30ean hasiko da emanaldia, eta lagun izango ditu puntako musikariak: Josu Salegi saxofoi-jotzailea eta Adrian Larrañaga perkusio-jotzailea.

"Momentu atsegina"

Aitor Huergok berak esan duen moduan, hirukote formatuan etorriko dira, eta, haren estilolari eutsita, entzuteko musika egingo dute, "atenditzea eskatzen duena"; baina kontzertu intimo edo lasaia izateaz batera, "nahikoa inprobisatutakoa" ere izango da, aldi berean. Kantak berak izango dira, baina Josuk jazz estiloa menderatzen du eta momentuan inprobisatu ere egingo du; Adrian, berriz, flamenko-mundutik dator [La Pulgarekin jotzen du], eta hark ere antzera. Kantak elkarrekin jo ditugu, muntatuta daude, badakite zelakoak diren, eta, hortik aurrera, espresio purua izango da", esan du musikariak.



Aitor Huergo kantuan. AITOR HUERGO

Huergok bi disko ditu kale-rututa, *Barruko paisaiak* -2022, autoekoitzita- eta *Ganbarako doinuak* -2024, autoekoitzita-, eta gaurko kontzertua bietako kantuekin osatuko duela azaldu du. Gitarra du hark instrumentu sormenerako zein interpretatzeko, eta Soralezera gitarra elektroakustikoarekin etorriko da.

Iragarri duenez, Asigor tabernan ordubate inguruko kontzertua emango dute, eta izango da "momentu atsegin bat pasatzeko aukera".

Bi disko

Lanbidez zein zaletasunez, musikarekin bizi da Aitor Huergo. Umetatik bizi du barru-barrutik musika, eta ogibidea ere bertatik bideratu du, 20 urte baino gehiagoan dihardu-eta musika erakusten, besteak beste, Bilbon, Azpeitian eta Deban.

2018an kantautore moduan jauzia eman ondoren etorri ziren bere diskoak. 2022an grabatu zuen lehen lana, bakarka, *Barruko paisaiak* izenburuarekin. "Oso lan berezia eta intimoa, barru-barrutik egindakoa", haren esanetan. Urte berean beste disko baten grabazioan kolaboratu zuen, Azpeitiko Mainlander rock taldearekin. Eta 2024an, bigarren diskoa kaleratu zuen Itziarren bizi den bilbotarrak. *Ganbarako doinuak* izenburua ipini zion bigarrenari, eta bertan, bestelako musika tresnak txertatu zituen, bestelako musikariek -artean, Mikel Markezen kolaborazioarekin-, eta emaitza izan zen folk eragin nabarmena duen "lan irekiagoa".

BARRENARI esan dionez, hirugarren diskoa izan daitekeenaren abestien zirriborroak idazten eta lantzen hasita dago.

Musika eskolakoekin dantzan



U.M.Z.

Musika Astea izan dute bukatzeaz dagoen hau Soralezeko Musika Eskolan. Entzunaldiak, ate irekiak, saio irekiak... denetarik egin dute, herritarrek hobeto ezagutu dezaten zein aukera dagoen musika eskolan. Ekintzen artean, eguaztenean, *Anabasa Pentagramaenean* ipuin musikatu egin zuten antzokian, goizean eskolakoendako eta arratsaldean gurasoendako. Ikusleak zein protagonistak elkarrekin kantuan eta dantzan ibili ziren.

Aurten ez dute saldarik banatu Irukurutzeta Egunean

Joan den domekan izan zen Irukurutzeta Eguna, baina aurten osintxuarrek ez dute saldarik eta txorizorik banatu. Orain arte antolatetan jardun duten taldetik jakinarazi dutenez, ez dute nahikoa boluntario lortu, eta horregatik laga dute bertan behera ekimena.

Jakina den moduan, Irukurutzeta Eguna maiatzeko lehe-

nengo domekan ospatu ohi da, eta garai batean erromeria handia egiten zen bertan, inguruetako herritar asko batzen zituena. Urte batzuetan ohitura galtuta izan eta gero, 90eko hamarkadan Kapirixio taldeak erromeria egiteko ohitura berreskuratu zuen, eta, orduetik, urte askoan, osintxuarrek -zenbait soralezetarrek lagunduta- banatu izan dute salda. Ikusteko dago aurrerantzean Irukurutzeta Eguneko ekimenak jarraipenik izango duen ala akorduan soilik geratuko den.

Elektrizitatea
Iturgintza
Igeltseritza
Pintura

EXGA S.L. 679 623 584 Soraluze

SORALUZE MOTOR
Mendiola ind. 13 Soraluze
476 556 817 - 943 75 21 38

ODRI Mota guztietako leihoen, pertsiaren, ateak, barandilak salmenta eta konponketa
ATEAK ETA LEIHOAK
ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA
T. 662 234 609
Eguzi Errota Kalea 2 - 30990 SORALUZE
e-mail: odrileihoak@gmail.com

MENDIZABAL okindegia
Ogita - Prentsa - Gosariak
Astelehenetik ostegunera:
08:00 - 13:00
17:00 - 19:30
Ostiralak
08:00 - 13:00
Larunbatak
08:30 - 13:30
Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

Criado Fruitategia Udalbegia
Enkarguak Whatsapp
Eterako zerbitzua
Iberikoak & delicatessen
Astelehenetik ostegunera:
09:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbatak: 09:00-13:00
629 958 536

ELIZPE HORTZ KLINIKA
Tel. 943 75 25 67

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA
Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENA astekarian
www.barrena.eus
webgunean
943 743 704
688 769 657

IZXGUIRRE Igeltseritza
Eraikin berriak • Kalifikazio emaitza
Erreforma • Era guztietako igeltseritza
50 urteko esperientzia • 610 638 913

ALBISUA
TAILER MEKANIKOA
Mekanizatzutako piezaak Erremintak
Mendiola Industrialdea 14-4 - 161 PK.
Tel. 943 75 21 42 - Fax 943 75 24 12
E-mail: albisu@albisu.net

aras zehaztasun handiko piezaak
Mendiola Industrialdea 19
Tel. 943 75 17 36 - 943 75 18 03
Fax 943 75 22 95
aras@tomilleriaaras.com
www.tomilleriaaras.com

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bildotasun
Etxeko trisak
Soufflés
Tel.: 943 75 10 02

Armendi Jatetxea

Terraza, kontzertuak, dardoak...
asigor
Ostiraletan pintxopotea
Gipuzkoa etorbidea 1

Batzoki
Asteburuetako menua,
plater konbinatuak...
Plaza Zaharra Erreserbak
(Soraluze) 638 91 15 97

Nerea Loiola Pikaza idazleak irabazi du Peru Abarka lehiaketa, 'Gramo bat' lanarekin

Bestalde, Lisipe bildumaren hemezortzigarren zenbakia euskaratu berri du

Izaro Aulestiarte

Markina-Xemeingo Udalak antolatzen duen Peru Abarka lehiaketa irabazi du Nerea Loiolak (Deba, 1985), *Gramo bat* izenburuko lanari esker. Guztira, 29 narrazio aurkeztu dira sariketara, eta, horien artean, Loiolarena saritzea erabaki du epaimahaiak, aho batez. Sari gisa 2.500 euro jasoko ditu eta lana album formatuan argitaratuko du, gero, Erein argitaletxeak.

Loiolak "feminismoaren baitan bolo-bolo ibili ohi den gai bat" landu du bere lanean, eta, horri buruz aritzeko, protagonistaren esperientzietan jarri du begirada. Epaimahaikideek zehaztu dute "hizkuntza zuzena eta sakona" erabili duela: "Simplea ustez, baina esanahiz bete. Kontatzeko moldean daude indarguneak gaian baino gehiago. Narratzaileak denboran jauziak egiten ditu kontakizunaren unearen arabera, eta, horretarako, aditz-denbora eta pertsona baliatzen ditu, batik bat. Nabarmentzekoa da, baita ere, gaiari azalpen zientifikoak eta zehatzak emateko hautatu dituen pasarteak".

Behin narrazio irabazlea zehaztuta, orain ilustratzailea hauta-



Zarautzen bizi den Nerea Loiola idazle debarra. NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

tzeko lehiaketaren bigarren faseari ekingo diote; bigarren epe horretan, narrazio hori ilustratzeko proposamenik onena aukeratuko du epaimahaiak. Ondoren, Erein-ek emango du argitara album ilustratua.

Lisipe bilduma eta JUUL saria

Halaber, Susa argitaletxearen Lisipe bildumaren hemezortzigarren zenbakia euskaratu du Loiolak. Joan den astean aurkeztu zuten liburua, Donostian, *Basatiak. Begirada libre bat*

hilekoari, gorputz askotarikoetatik izenburupean; Maria Reimondez idazle galiziarak idatzitako *Bárbaras, la regla contada a gente diversx* lanaren itzulpena da. Liburuak, ikuspegi biologiko esentzialista batetik aldentuta, lotu egiten ditu hilekoaren ertz politikoak, kulturalak, sozialak eta ekonomikoak.

Bestalde, Nafarroako Ikastolen Elkarteak antolatutako JUUL sarietako bat jaso du Loiolaren *Oraire* liburua; gogokoena izan da 10 eta 12 urte artekoen artean.

Ane Bastidak Japonian aurkeztu du 'Hideane eta bere lagunak' liburua

Idazlea pozarren dago album ilustratua aurkezteko egin dituzten ekitaldi ofizialek izan duten harrera onarekin

I.A.

Ane Itziar Bastida Lizaso (Deba, 1977) Japonian izan da apirillean, *Hideane eta bere lagunak* (Denonartean) aurkezten, eta "oso-oso gustura" etorri da han bizitako esperientziarekin. "Zortzi eguneko bidaia izan da eta harrera bikaina egin digute", aipatu du.

2023an ikusi zuen argia Nadia Beltran de Lubianoren irudiekin osatutako album ilustratuak, eta, euskaraz, gaztelaniaz eta katalanez ez ezik, japonieraz ere irakur daiteke gaur egun. Apuleyo argitaletxeak kaleratu zuen, hain zuzen, haurrei zuzendutako istorioaren japonierazko bertsioa, Hide Dohinok, Naoki Adachik eta Ryotaro Yamajik egindako itzulpenarekin.

Urtarrilean, japonierazko itzulpena plazaratu berrikan, idazleak "ipuin kontaketa euskaraz eta japonieraz egitea amesten" zuela aitortu zuen. Eta horretan murgilduta ibili dira, batik bat Euskal Herrian, hainbat saio eginez. Japonian biribildu dute, baina, erronka. "Bi aurkezpen ofizial egin ditugu: bata, Tokioko Cervantes Institutuan, gaztelera, euskaraz eta japonieraz; bestea, San Inazio elizako lokal



Aurkezpenetako bat, Japonian. UTZITAKOIA

batean, euskaraz eta japonieraz. Oso polita izan da. Cervantes Institutuan gaztelera eta japonieraz aritzea aurreikusten genuen, baina euskara ere sartu genuen, azkenean. Sorpresa izan zen ikasleentzat, euskal kultura eta euskara, beste hizkuntza bat, genuela jakitea", adierazi du.

Literatur saria Deban

Ane Bastidak aitortza jaso du aurten *Deba 100 hitzetan* lehiaketan: saritu gabeko tokiko lan onenari eskainitako saria lortu du, *Tarin-Tarin* idazlanarekin.

Maidar musikariaren kontzertua eta 'Txan fantasma' txotxongilo-saioa asteburuan

Bihar eta etzi izango dira 'Ispilu(h)ari' programaren baitako ekitaldiak

I.A.

Ispilu(h)ari programaren baitan, bi ekitaldi antolatu ditu Debako Udalak astebururako: gazteei eta helduei zuzendutako musika kontzertua, batetik, eta 5 urtetik gorakoei zuzendutako txotxongilo-ikuskitza, bestetik. Ispiluen gelan egingo dira, bihar eta etzi, hurrenez hurren, doan.

Maidar Cigarroa musikari lapurtarra izango da biharko, hilaren 9ko, gonbidatua; 18:00etan hasiko da emanaldia. Aurrez Haizean, Hiru Soinu eta Gurashow taldeetan aritu ondoren, bakarkako proiektuan murgilduta

dabil *Maidar* izen artistikoarekin ezaguna den abeslaria. Ahots eta estilo pertsonala garatzen dihardu, emozioa eta intimitatea estetika garbi batekin uztartuz, eta pop melodiekin ardatzen dute, nagusiki, haren musika. 2024an plazaratu zuen bakarkako lehen lana, *Biran den lasaia*, eta 2025eko abenduan ikusi zuen argia bigarren diskoak, *Argazkian irria* izenburupean. Bertan, emakumeen transmisioarekin lotutako gai sakonak jorratzen ditu, belaunaldien arteko konexioa eta bizipenak gordetzeko beharra azpimarratuta.

Mariasun Landaren ipuina oinarri Igandean, 17:30ean, Pantzart Antzerkiak eta Bihar Txotxongilo Taldeak ekoiztutako *Txan fantasma* aurkeztuko dute. Ikuskitza Mariasun Landaren ipuinean oinarrituta dago eta Ainhoa Pineda eta Santiago Ortega dira antzezleak. Sinopsiak hauxe dio: "Karmen txur umezurtza da, eta izaba Edurnerekin bizi da. Logelara, bakarrik, irudimenezko unibertso bat sortzen du jostailuekin. Egun batean, Txan fantasma agertzen da eta haren bizitza guztiz aldatzen da. Elkarrekin jolasean,



Txan fantasma txotxongilo-ikuskitza. PANTZART KONPAINIA

berriketan, barrez, primeran pasatzen dute. Etxekoek, ordea, ez dute fantasma ikusten; nekatoa burutik gaizki dagoela

uste dute. Orduan, Karmen txur eta Txanek bidaia bat egiten dute, jaietan dagoen herri batera iritsi arte".

Mailaz igo dira Amaiak-Bat taldeko gizonzkoen Gorengo kadeteak

Ohorezko mailara igo dira, liga amaitzeko hiru jardunaldi falta direnean; kadete neskak ere fin dabilta, igoera fasean

Ainara Argoitia

Denboraldi bikaina egiten ari dira Amaiak-Bateko gizonzkoen Gorengo kadeteak. Hogeita zazpi jardunaldi jokatu, sailkapen nagusian lider dira, hogeita bost partidu irabazi, bakar bat galdu eta beste bat berdinduta. Puntu bakarrera dute bigarren sailkatua, Mondragon taldea, eta berderatzira hirugarrena, Lazkao. Maila horretan, sailkapen nagusiko lehen bi taldeak igotzen dira kategoriaz, eta, horregatik,

erabakigarria zuten larunbateko partidua, Anaitasunari etxean irabaziz gero zuzenean mailaz igotzen zirelako, hiru jardunaldi soilik gelditzen baitira liga amaitzeko. Partida uste baino erosoago irabazi zuten etxekoek: hamaika gol sartu zizkieten azkoitiarrei, eta bakar bat ez haiek. Partida irabazi ostean, jokalaria udaletxeko balkoira igo ziren, pozarren, zaleekin ospatzera.

Ildo beretik, emakumezkoen taldea ere denboraldi borobila



Gizonzkoen Gorengo kadeteak, pozarren, partida irabazi ondoren. AINARA ARGOTIA

ari da egiten. Laugarren dira igoera faseko sailkapen nagusian, lider doan Martutenerengandik bi puntura: 22 punturekin. Arrupe Chaminade dago bigarren (23) eta Aizkorri-Segura, hirugarren, Amaiak-Batekin berdinduta (22). Bost jardunaldi falta dira liga amaitzeko, eta mailaz igo-

tzeko lehia jarraitzen dute, sailkapen nagusiko lehenengo laurak igotzen baitira -Touring dago bosgarren, Amaiak-Bat baino puntu bat gutxiagorekin: 21-. Debarrek ostiralean jokatu zuten joan zen jardunaldira zegokion partidua, etxean, Añorgaren kontra; 1-0 irabazi zieten.

Pegatina identifikagarria, ezinbesteko BARRENA astekaria etxean jasotzeko

I.A. DEBA-ITZIAR

Aurrerantzean, BARRENA astekaria etxean jaso nahi duten herritarrek ezinbestean pegatina identifikagarria postontzian itsatsita izan beharko dute. Banatzaileak aldizkaria jaso nahi dutenen postontziak identifikatzeko erabiltzen du, hain justu, eranskailu hori. Astekaria etxean jasotzea doakoa da Debako eta Itziarko herriguneetan, baita Mutrikuko Urazamendik auzoan

ere. Izena eman ez dutenek eskaria Internet bidez egiteko aukera dute oraindik ere: barrena.eus/harpidetzak estekan.

Eskaera harpideei

BARRENA asteotan abiatu du banaketa pertsonalizatua Deban eta Itziarren, baina hainbat harpidedunek ohartarazi dute norbaitek kendu egin dizkiela postontzietako pegatinak, eta horrek zaildu egin du banaketa; hala,

erredakziotik dei egiten diegu harpidedunei eranskailua daukatela egiazta dezaten, eta, beharrezkoa balitz, berria eska dezaten.

Astekaria ostiral eguerdian banatzen da, eta horretarako beharrezkoa da banatzaileari norbaitek atariko atea zabaltzea. Harpidedunek, nolana ere, aleak eskuragai izango dituzte Galtzan, Ostolaza Udal Liburutegian, Burugorri eta Gure Dendan.



Eneko Ugaldere eta Ane Arrizabalagaren hitzaldiak ostegunean

Atzo abiatu zen Baso Bete Zientzia ekimena Deban, Ibon Aranberri Kimikan doktorearen eta Egoitz Konde ingeniari industrialaren hitzaldiekin. Eta egitarauak ostegunean, hilaren 14an, izango du jarraipena, Kultur Elkartearen, beste bi berbaldira eta pintxo-potearekin.

Eneko Ugalde eta Ane Arrizabalaga izango dira gonbidatuak. Ugalde ingeniari elektronikoa da, eta robotikaz ariko da, *Robotak eta gizakia: oraina eta etorkizuna* goiburupean. Ikerketa biomedikoan doktoregai Arrizabalagak, aldiz, entzumenaren izango du hizpide: *Entzun bai, baina nola?* izenburupean ariko da. 19:00etan hasiko da saioa.

Digitalizazioari buruz hausnartzeko saioa, Telmo Lazkanorekin

Altxa Burua Deba-Itziar taldearen ekimenez, Telmo Lazkano (Zumaia, 1994) adituak gidatutako bigarren saio praktikoa ekainaren 15ean egingo dute, Gaztelekuan (18:30ean). Antolatzaileek azaldu dutenez, elkarrekin hausnartu eta komunikazioa eta digitalizazioa zentzuz eta modu praktikoa lantzeko aukerak aztertuko dituzte bertan.

Parte-hartze handiarekin, Itziarko Erromeria Egunak goizaldeko ordu txikiak arte iraun zuen



IMANOL MENDIZABAL



IMANOL MENDIZABAL

Aurreko larunbatean, maiatzaren 2an, ospatu zen XVI. Erromeria Egunari buruzko balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Euriaren beldur izan arren, hurrengo eguneko goizaldeko ordu txikiak arte giro bikaina nagusitu zela azpimarratu

dute. Goizean eta eguerdian dantzek eta kalejirek bete zituzten Itziarko kaleak, eta arratsalde-gau partean Tranpapeak protagonismo berezia hartu zuen. "Beteta egon zen eta dantzari asko elkartu ziren bertan", adierazi dute.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAINTZAK

Elgoibar. San Lazaro egoitzarako sukaldari bila gabiltza, ordezkapen bat egiteko. Curriculumak egoitzako harreran utzi edo dir:elgoibar@biharko.org helbidera bidal daitezke.

ESKAERAK

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. 631 31 94 76

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat baita ere pintore, arutz, konponketa... lanetan. Ameriketako Estatu Batuetan egin nituen lan horiek. 603 72 70 67

Elgoibar. Zaintza alorrean egin nahi nuke lan. Adinekoak zaintzen eskarmentua. Lanerako pres-tutasun osoa, bai eta malgutasuna ere. 642 578 943

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka, asteburuetan edota etxeko langile moduan. 643 86 05 41

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan zein ospitalean. 642 85 28 54

OSPAKIZUNAK

Elgoibar. 1956ko kintoen bazkaria ekainaren 13an. Kalegoen plazan batuko dira, 12:30ean, argazkia ateratzeko. Luntxa, lba! Ondon, eta ondoren, bazkaria, Txarridun. Interesatuak 75 euro ordaindu behar dituzte Laboral Kutxako kontu honetan, izena eta bi abizen zehaztuta: ES15 3035 0007 20 0071147446. 696 455 024 (Antonio) / 630 286 363 (Begoña)

ZORION AGURRAK



ELGOIBAR

Kira

Zorionak, Kira! Primeran pasatu genuen zure laugarren urtebetetze eguna ospatzen. Asko maite zaitugu! Muxu bat, Ekhiaren eta etxekoan partez.



ELGOIBAR

Julen

Zorionak, Julen, gaur 4 urte handi betetzen dituzulako. Ilargiraino maite zaitugu; familiako guztien partez, mila muxu potolo.



ELGOIBAR

Ekhi

Zorionak, Ekhi! Gozatu eguna! Muxu potolo bat, etxekoan partez.



ELGOIBAR

Izeia

Zorionak, Izeia! Datorren igandean izango da zure jaunartze eguna; primeran ospatuko dugu. Familia osoarekin. Muxu handi bat, aitxixaren eta amamaren partez.



ERMUA

Enara

Zorionak, Enara! Etxeko bihurritxoak 4 urte beteko ditu. Musutxo handi bat, ama, aita, Misfits eta familia osoaren partez. Asko maite zaitugu, hemendik ilargiraino eta buelta!



ELGOIBAR

Nikole

Zorionak, Nikole, igandean 8 urte beteko dituzulako. Oso ondo pasa! Etxekoan, eta, bereziki, Manexen partez.



ELGOIBAR

Karmen eta Gregorio

Zorionak, amama eta aitxix! 63 urte ezkondu zinetela! Ez zarete makalak! Beti ezin da, baina, eutsi poz-aurpegi horiei luzaroan. Astelehenean zuekin izango gara, merezi duzen moduan ospatzeko. Etxekoak.



MENDARO

Inazio eta Juanita

Inazio Arregi eta Juanita Uria, zorionak! Aurten 63 urte betetzen dira ezkondu zinetela. Jarrai dezagun horrela, urtez urte denok batera zuen egun handi hau ospatzen. Muxu bat, etxekoan partetik.



SORALUZE

Santos eta Idurre

Zorionak, Santos, maiatzaren 4an 75 urte egin zituelako eta zorionak zuri ere, Idurre, maiatzaren 6an, 11 urte egin zenituelako. Patxo haundi bat, etxekoan partez.

Iragarkia jartzeko

943 744 112

sailkatuak@barrena.eus

www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkeneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- BARRENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu.

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurra helbidean sartu.
- Mezua bidali herrietako erredakzioetara edota Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz zorionagurra@barrena.eus. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta testua.
- Etorri edo deitu gure betiko egoitzetako batera.

OSASUN GIDA.....

RPS 271/12

ainhoa
FISIOTERAPIA

Jausoro plaza, 6 behean - Elgoibar

943 531 953
669 565 745

aldaz
hortz klinikak

RPS233/13

943 366 377

San Bartolome, 22

fisio&mas
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

RPS 177/02

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 628
www.fisio-mas.com

leku eder
hortz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Erparantzia, 5 - Elgoibar

943 530 053

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Terribio Etxebarria, 22
Elbar

677 551 850

ELGOIBAR

Kontxa Elgezua Loiola



2026ko maiatzaren 2an hil zen, 94 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunera agertu izana ere.

ELGOIBAR

Felisa Balzola Astarloa



Pedro Maguregi Osororen alarguna.
2026ko maiatzaren 3an hil zen, 94 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunera agertu izana ere.

MENDARO

Jokin Urain Larrañaga

Amesten dugun bitartean biziko gara, amets txikiak eta handiak egiten jarraitzen dugun bitartean izango dugu itxaropena, gure ametsak egia bihurtzeko itxaropena.



ELGOIBAR

V. urteurrena

Ana Mari San Martin Aranberri



2021eko maiatzaren 5ean hil zen, 79 urte zituela.

*Beti gure bihotzean.
Maite zaitugu.*

Etxekoak

ELGOIBAR

XIV. urteurrena

Angel Mari Arregi Cano



2012ko maiatzaren 11n hil zen.

*Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzean.*

Familiakoak



Barrena eskelak: zabalkunde handiena Debabarrenean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - barrena@barrena.eus

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 | barrena@barrena.eus

OSTIRALA 8

• SORALUZE Tailerra: 'Banku eragiketak'

Soraluzeko Nagusien Kontseiluak Kontsumobiderekien elkarlanean antolatutako tailerra, pertsona nagusiekin zuzenduta. Kalebarren 8an, 10:00etan.

• DEBA Odol ematea

Deban Aurrez txanda eskatzea beharrezkoa da. Horretarako, sartu *gotatanta.eus* webgunean edo idatzi 623 91 23 03 telefono zenbakira. Ifar kaleko Luzaro eskolan, 16:30ean.

• SORALUZE Eusfera: patata-tortilla lehiaketa,

gaztetxoak gurasoen kontra 10-12 urte bitarteko gaztetxoek gurasoen kontra patata-tortilla lehiaketa egingo dute. Gaztelekuan, 16:30ean.

• SORALUZE Erakusketa: 'Dolmenen ibilbidea'

Dolmenen Ibilbidean egindako indusketa arkeologikoetan aurkitutako hainbat elementu izango dira ikusgai erakusketan. Erakusketa aretoan, 18:30ean.

• MENDARO Errigorako produktuen banaketa

Udaletxeko atariko ate berdean, 18:30etik 20:00etara.

• SORALUZE Erakusketa: Jone Telleriaren 'Airean'

ERMUA Vertigo Rock

LARUNBATA 9:

Hemeretzigarren edizioak hamar talde ekarriko ditu. Egitaraua: katean, 12:30ean, Judas eta 13:30ean Kraken. 14:30ean, herri bazkaria, plazan. Martxoaren 8ko plazan, 16:55ean hasita, Staff, Dire End eta Cobra. Katean, 20:05ean, Konorte. Herriko Plazan, 21:00etan hasita, GEM, The Lizards, Ezpalak eta Anestesia.



Oreka Art galerian, 19:00etik 20:00etara.

• DEBA Kontzertua: Hecetu Welo

Ondargain tabernan, 19:30ean.

• ERMUA 'Desobedienteak 18/98'

Sarrera: 10 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.

• DEBA Erakusketa: '5 litro'

Aire kutsadura eta osasuna. Errealitate birtualeko erakusketa. Egileak: Ainhoa Bereziartua Aranzabal eta Maddi Astigarraga Bergara. Maiatzaren 14ra arte. Kultur Elkartean.

LARUNBATA 9

• ERMUA 'Lurraldearen zaindaria' txango kulturala genero ikuspegiarekin

Oña, Tobera eta Frias zeharkatzen dituen txango kulturala, lurralde hura modelatu eta zaindu zuten emakumeen arrastoa berreskuratuz. 5 euro. Irteera: Emakumeen Topalekuan, 09:30ean.

• SORALUZE Ikastaroa: 'SoraFolk'

Musika Eskolak antolatuta. 10:00etan hasiko da eta egun osoko ikastaroa izango da, bazkaria barne. Ondoren, emanaldia egingo dute herrigunean.

• ERMUA 'La voz de la poesía' olerki tailerra

Pertsona helduentzako tailerra. Udal Liburutegian, 11:00etan.

• ERMUA 'Nire gorputza, nire boterea' nesken zuzenbide autodefentsa

Dinamika ludiko eta praktikoen bidez, gorputz-adierazpena, ahotsaren erabilera eta oinarriko komunikazio-tresnak landuko dira. 6 eta 12 urte bitarteko neskei zuzenduta. Doan. Emakumeen Topalekuan, 17:00etan.

• ELGOIBAR Erraldoien topaketa

Erbuzek antolatuta. Kalegoen plazan, 17:00etan. Eurria bada, Sigman.

• DEBA Kontzertua: Maider Cigarroa

Ekitaldia *Ispilu(h)ari* programaren baitan

antolatuta du Udalak. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 18:00etan.

• DEBA Ampo txapelketa: paleta larruz eta pala motza

Lopez de Munain eta Ibai Perez / Unda eta Pichel, Gaubeka eta Olazabal / Murcia eta Del Rio. Aldats pilotalekuan, 18:00etan.

• SORALUZE Boxeo jaialdia

Sorabox eta Neskabox taldeek antolatuta. Arane kiroldegiko frontoian, 18:00etan.

• ELGOIBAR Kontzertua gaztetxean

Elgoibarko Gazte Asanbladaren 40. urteurreneko ekintzen barruan, Elgoibarko Xaribari taldearen kontzertua eta Zirikinik Ez taldearekin erromeria. Gaztetxean, 22:30ean.

IGANDEA 10

• DEBA Mendi irteera bateratua: Montes Obarenes (Paralrayo)

Autobus geralekuan, 07:30ean.

• MENDARO Herri Urratsera joateko autobusa

Izena emanda dutenentzako. Txartela autobusean bertan ordaindu behar da, eskudirutan. Tren estazio ondoan, 08:45ean.

• DEBA-ITZIAR Autobusa Herri Urratsera

Autobusa 09:00etan abiatuko da Debatik, paseo estalitik, eta 09:10ean jasoko du jendea Itziarko biribilgunean; 19:30ean izango dute Senperen itzulerakoa. Txartelak salgai daude, 10 euroan, leraenean eta Burugorri.

• ELGOIBAR Aitzolara bisita gidatua

Aitzolako auzo elkarteak antolatuta du, Pello Arrieta eta Javier Elortza historialariek. Aitzolako zubian, 11:00etan.

• DEBA Bisita gidatua: 'Debatik Zumaiara itsasontziz'

Iraupena: 01:00. Bisitari kopuru mugatua: 39 lagun. Beharrezkoak: jantzi egokiak eguraldiaren arabera. Prezioa: 16 euro –12 urtetik beherakoentzat: 10 euro–. Informazio gehiago: geoparkea.eus. Irteera puntua: Anes Arrinda pasealekua (pantalana), 12:30ean.

• DEBA 'Txan Fantasma' txotxongilo ikuskizuna

Ekitaldia *Ispilu(h)ari* programaren baitan antolatuta du Udalak. 12 urtetik beherakoei zuzenduta. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 17:30ean.

ASTELEHENA 11

• ERMUA Komikien irakurketa kluba

Komikizaleak gazteentzako komikien irakurketa kluba: *Surflaria* (Uxue Alberdi, Susanna Martin). Udal Liburutegian, 18:30ean.

• SORALUZE Eusfera: 'Kale kantoian jolasian familientzat'

Familiek elkarrekin jolas egiteko saioa antolatuko du ludotekak. Ludotekan, 16:30ean.

• SORALUZE Erakusketa: 'Pintura eskolako ikasleen lanak'

Krabelin pintura eskolako ikasleen lanak ikusi ahal izango dira erakusketan. Erakusketa aretoan, 18:30ean.



ELGOIBAR Morkaikoren Eguna

LARUNBATA 9: 06:00etan, Elgoibarko Mendi Itzulia, Kalegoen plazatik. 08:30ean, Elgoibarko Mendi itzulitxo, familian. Kalegoen plazatik –Idotorben, 10:00etan–. 13:30ean, Finalista Eguneko domina banaketa. Kalegoen plazan. Ondoren, bazkaria.

Zure produktu edo zerbitzuak ezagutarazi nahi?

Ipini publizitatea Barrena astekarian edota Barrena.eus webgunean

publi@barrena.eus | 688 76 96 57



10.500 ale astero
+120.000 bisita hilean

ASTEARTEA 12

- **ELGOIBAR Debako flysch beltza ezagutzeko irteera**
Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak antolatuta. Inma Mugertza geologoak emango ditu azalpenak. Informazio gehiago: Jubilatuen Biltokian. Irteera: 09:00etan.
- **ELGOIBAR Zaintzako eta etxez etxeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua** Bakarkako saiokak. Doan. Beharrezkoa da aurretik hitzordua hartzea: 688 64 09 83. Lilan, Elgoibarko Emakumeen Etxean, 16:00etan.
- **SORALUZE Eusfera: 'Kale kantoian jolasian familientzat'** Familiek elkarrekin jolas egiteko saioa. Frontoian, 16:30ean.
- **ERMUA Haurrentzako tailerra: 'Naturarekin jolasean'** Jarduera horren ardatza naturako elementuak erabilita objektuak sortzea izango da. 2019an eta 2020an jaiotako haurrei zuzenduta. Udal Liburutegian, 17:30ean.
- **ELGOIBAR Sanbartolomeetako bilera** Jaietako egitaraua osatzeko bilera irekia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 17:30en.

ASTEAZKENA 13

- **ELGOIBAR Erakusketa: 'Kuir'** Maiatzaren 28ra arte. Kultur Kafean, 09:00etan hasita, taberna ordutegian.
- **MENDARO Helduen irakurketa kluba** Asier Serranok gidatuta. Lizar Begoñaren *Mundu zitalaren*



DEBA 'Suharra' dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia

ASTEAZKENA 13: Kultur Elkarteak, 19:00etan.

kontra liburua landuko dute. Liburutegian, 17:30ean.

- **SORALUZE Eusfera: 'Kale kantoian jolasian familientzat'** Familiek elkarrekin jolas egiteko saioa. Frontoian, 16:30ean.

OSTEGUNA 14

- **ERMUA Adimen emozionaleko irakurketa kluba** *Entre líneas y emociones* adimen emozionaleko irakurketa kluba: *El niño que se enfadó con la muerte* (Enric Benito). Udal Liburutegian, 09:30ean.
- **DEBA Mendi irteera: Zumaia-Artadiko San Migel** Arbil Elkarte Sozialaren ekimenez. Debatik trenez joango dira partaideak Zumaiaraino eta han oinezko bidea egingo dute Artadiko San Migelera. Tren geltokian, 09:40an.
- **SORALUZE Eusfera: 'Kale kantoian jolasian familientzat'** Familiek elkarrekin jolas egiteko saioa. Frontoian, 16:30ean.
- **ERMUA Gazteentzako irakurketa kluba** *Gaztetxo letrazaleak* gazteentzako irakurketa kluba (9-11 urte): *Joemak eta polasak* (Iñigo

Astiz, Maite Mutuberria). Udal Liburutegian, 17:30ean.

- **DEBA Baso Bete Zientzia hitzaldiak: Eneko Ugalde eta Ane Arrizabalaga** Eneko Ugalde –ingeniari elektronikoa–: *Robotak eta gizakia: oraina eta etorkizuna. Nola isladatzen da gure eguneroko bizitzan?* / Ane Arrizabalaga –lkerketa Biomedikoan doktoregaia–: *Entzun bai, baina nola? Entzumenaren sekretuak laborategiko begiradatik*. Debako Kultur Elkarteak, 19:00etan.
- **ERMUA Euskarako irakurketa kluba** *Irakurketa gozagarri* euskarako irakurketa kluba: *Bisita* (Mikel Pagadi). Udal Liburutegian, 19:00etan.
- **ELGOIBAR Koruko ikasleen kontzertua** Musika Eskolako koruko ikasleek kontzertua emango dute. Herriko Antzokian, 19:00etan.

OSTIRALA 15

- **SORALUZE Kantu jolasak** Katamarran ume-txokoan, 10:00etan.

- **ELGOIBAR Odol ateratzea** Txanda hartzeko: *gotatanta.eus*. Whatsappez: 623 32 84 08. Jubilatuen Biltokian, 16:30ean.
- **SORALUZE Eusfera: 'Kantu-jolas tailerra familientzat'** 0 eta 5 urte bitarteko umeentzat eta haien gurasoentzat kantuak dituzten jolasen tailerra egingo da. Katamarran Haur Txokoan, 17:00etan.
- **MENDARO Buruarinak egiteko tailerra** In Leike kultur elkarteak antolatuta, Mendaroko eskola-umeentzat. Plaza mugatuak dira. Izena eman behar da aurrez, *mendaroinleike@gmail.com* helbidera idatzita. Frontoian, 17:00etan.
- **ERMUA Antzerkia: 'Ei encargo'** Sarrera: 10 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.
- **ELGOIBAR Antzerkia: 'Nahi eta ezin'** Taupada antzerki taldearen eskutik. Herriko Antzokian, 20:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- 8 BARIKUA Barrenetxea / L. Apraiz / I. Lecumberri
 - 9 ZAPATUA Soto / *Arriola / L. Apraiz / A. Alcalá / *A.M. Baz
 - 10 DOMEKA Soto / L. Apraiz / A. Alcalá
 - 11 ASTELEHENA Garitaonandia / H. Burgoa / I. Ugarte
 - 12 MARTITZENA Arriola / H. Burgoa / A.M. Baz
 - 13 EGUZTENA Fernandez / H. Burgoa / M. Alves
 - 14 EGUENA Yudego / H. Burgoa / I. Lecumberri
 - 15 BARIKUA Oruesagasti / A. Zalduegi / A. Alcalá
- *09:00-14:00 / *09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:

- DEBA:** 09:00-13:45 / 16:30-19:30
- Elgoibar-Mendaro-Soraluze:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00
- Ermua-Mallabia:** 09:00-13:30 / 16:30-20:00
- Mutriku:** 09:00-13:30 / 16:45-20:00
- Itziarko botikina:** 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK

- Egunez:** 09:00-22:00
- Gauetz:** 22:00-09:00
- Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 206 100)
- Larunbatak:** Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
- Deba-Mutriku: 09:30-13:00
- Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
- Igandeak eta jaiegunak:** Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK

- DEBA A. ZALDUEGI:** Lersundi, 20 - 669 26 22 01
- DEBA H. BURGOA:** Astillero, 2 - 667 33 88 90
- ELGOIBAR ARRIOLA:** Santa Ana, 1 - 943 74 01 40
- ELGOIBAR BARRENETXEA:** Errosario, 26 - 943 74 12 77
- ELGOIBAR GARITAONANDIA:** Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
- ELGOIBAR YUDEGO:** San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
- ERMUA A.M. BAZ:** Zearkale 2 - 943 03 17 03
- ERMUA M. ALVES:** Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
- ERMUA A. ALCALA:** Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
- ERMUA I. LECUMBERRI:** Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
- ERMUA M.I. UGARTE:** Goienkale, 11 - 943 17 05 26
- MALLABIA E. ARRONATEGI:** Mallazpi z/g - 943 17 24 14
- MENDARO FERNANDEZ:** Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
- MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY:** Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
- MUTRIKU L. APRALIZ:** Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
- SORALUZE SOTO:** Rekalde, 1 - 943 75 16 38
- SORALUZE ORUESAGASTI:** Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

ZINEMA

ELGOIBAR

HERRIKO ANTZOKIA

'Incontrolable'

Ostirala, 8: 19:00
Larunbata, 9: 19:00, 22:15
Igandea, 10: 19:00
Astelehena, 11: 21:00

ERMUA

ERMUA ANTZOKIA

'Calle Málaga'

Larunbata, 9: 19:30
Astelehena, 11: 20:30

'Michael'

Larunbata, 9: 22:00
Igandea, 10: 19:30
'La familia Beneton +2'
Igandea, 10: 17:00
'Un poeta'
Osteguna, 14: 20:30

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA

'La plaga'

Larunbata, 9: 17:00, 19:45

Igandea, 10: 17:00, 20:00
Astelehena, 11: 20:30
'Incontrolable (I swear)'
Larunbata, 9: 22:30
Igandea, 10: 20:00
Astelehena, 11: 19:30
'Couture (Alta costura)'
Larunbata, 9: 19:45, 22:30
Igandea, 10: 17:00, 20:00
Astelehena, 11: 19:30
'David. Una aventura gigante'
Larunbata, 9: 17:00
Igandea, 10: 17:00

DEBA

KULTUR ELKARTEA

'Springsteen: música de ninguna parte'
Igandea, 10: 19:00
'Suharra'
Asteazkena, 13: 19:00

ITZIAR Endoiako Asentzio jaiak

OSTEGUNA 14 (Asentzio Eguna): 19:30ean, txupinazoa.

20:00etan, meza. 21:00etan, auzo afaria, Ane Urbietak eta Haitz Martinek alaituta.

OSTIRALA 15: 19:00etatik 21:00etara, pintxo-poteoa. 22:00etan, Endoiako II. Mus Txapelketa –izen ematea, 20 euro–.

LARUNBATA 16 (Umeen eta Gazteen Eguna): 12:00etatik 19:00etara, puzgarriak eta kart zirkuitua haurrentzat. 17:00etan, txokolate-jana. 21:00etan, afaria, Endoiako biltokian. 23:00etan hasita, DJ Indate.

IGANDEA 17: 11:00etan, meza. 12:00etan, Itziarko Andutz dantza taldea. 13:00etan, luntxa. 14:00etan, auzo bazkaria, Endoiako biltokian. 17:30ean, herri kirolak.



AZKEN BERBA

EuskAHALdunon komunitatea



**IÑAKI INURRIETA
LABAIEN**
EUSKALTZALEA

Ahalduntze tailer batean dihardut. Euskaraz eroso sentitzen ikasi nahi dut, ahal den guztietan, ahalik eta jende gehienarekin. Horrek erdararen alderako sumisioa noraino sartuta dudana konturatzea eskatzen dit. Eta sumisio horren azpian zenbaterainoko indarkeria ezkututzen den: zenbat debeku, gutxieste, izutze, lotsarazte, isilarazte... Zenbaterainoko zapalkuntza.

Ez da erraza hori lau saiotan lortzea. Gehiago beharko ditut. Ondo bidean, ahalduntze psikologikoa lortuko nuke hala, baina ondoren etorri beharko dute, besteak beste, ahalduntze ideologikoak, dialektikoak, didaktikoak. Zertarako? Gure ametsa, euskaraz bizitzea, arrazoi garbiz azaltzen ikasteko euskaraz errazegi baztertzeko ohitu diren euskaldun epelei, eta gure artean bizitzera etorri berri direnei, eta aspaldian edo betidanik hemen bizi izanik ere gure nahi hori ulertzen ez dutenei, edo are mespretxuz edota amorruz hartzen dutenei.

Ahalduntzea askoren kontua izatera iritsitakoan, sarea osatuko dugu elkarrekin, euskahaldunon komunitatea.

BUKATZEKO

'Joxe Mari' eta 'Maritxu' izenez bataiatu dituzte 30 urtean izenik gabe egon diren Mendaroko erraldoiak

Herriko 12 urtez azpiko haurrek aukeratu dituzte izenak, boto bidez

Ainara Argoitia MENDARO

Izenik gabe egon dira urteetan Mendaroko bi erraldoi zaharrenak, eta horregatik, beharbada, haia maika modutara deitu izan diete herritarrek. Baina bataiatu dituzte herriko umeek. Izan ere, Mendaroko Udalak erraldoientzat izen bana proposatzeko eskatu zien 12 urtez azpikoei, eta apirilaren 17ra arteko epea jarri zien horretarako. Guztira, 167 ume egin zituzten ekarpenak, eta, behin epe hori gaitunduta, izen-proposamen haiek guztiak jaso eta erraldoi bakoitzarentzat launa izen apartatu zituen epaimahai batek: gizonetakoarentzat, *Euxebio*, *Joxepe*, *Joxe Ramon* eta *Joxe Mari*; eta emakumeetakoarentzat, *Iñaxi*, *Xixili*, *Kontzezi* eta *Maritxu*. Zortzi izen horien zerrenda umeen esku utzi zuten gero, haiek bi gustukoena aukera zitzaten, boto bidez. Eta astelehenean jakinarazi zituen Udalak bi izen irabazleak: *Maritxu* eta *Joxe Mari*.

Izenen berri izan zuten egun berean haiek ikusten izan zen Mendaro ikastolako haur talde bat, aldizkari honetarako argazkia ateratzeko aitzakian. Maila bakoitzeko bina ume joan ziren udaletxera, eskutik helduta, eta begirik kendu gabe egon zitzaizkien begira herriko ospakizunetan hamaika bider ikusi izan dituzten lagunak. Betiko lagunak dituzte, baina orain izena dute, eta izenarekin batera izana ere eman diete haurrek.

"*Maritxu* txistularia da, baina eskuan dauka txistua, atsedenean



Mendaroko eskola-umeak, maila bakoitzeko bina, astelehenean, erraldoiekin. AINARA ARGOITIA

daudelako. Txistularia da, baina hark ere dantza egiten du jaie-tan", esan du Alaia Urbietak. Eta zehaztu du, ondotik, Jon Mendikutek: "Baina dantzaria *Joxe Mari* da. Zapia dauka lepoan, eta dantzari jantzita dago". Hor ez dute zalantzarik egin haurrek. Azkeneko zazpi bat urtean bi lagun berri ere gehitu zaizkie *Joxe Mari*-ri eta *Maritxu*-ri kua-drillara: euskal mitologiako bi izakiren trazara sortutako *Akerbeltz* eta *Mari*. 2019an sortu zuten *Akerbeltz* Buruarin enpresakoek, San Joan bezperako Akelarretarako. Geroztik, urtero atera dute plazara ekainaren 23an, baina, laguna falta zuela

eta, *Mari* sortu zuen, iaz, Upe Gonzalez elgoibartarrak, herriko konpartsakideen eskariz.

Akerbeltz-en eta *Mari*-ren aldean, baina, dantza asko egingoak dira herrian gure gauroko bi protagonistak. Hala ere, inor gutxi du haien historiaren berri, Udalak berak ere ez zeukalako jasota nork eginak ziren.

**Xabier Garate
irundarrak sortu
zituen 'Joxe Mari'
eta 'Maritxu',
duela 30 bat urte**

Baina, uste bati tiraka, eta galdezka-galdezka, iritsi gara haiek sortu zituen lagunarengana, Xabier Garate irundarrarengana. Makina bat erraldoi eta buruhandi sortu zuen Xabier Garatek, erretiroa hartu bitartean, baina lehen kolpean ezagutu ditu haren eskuz sortutako *Joxe Mari* eta *Maritxu* argazkian. Data zehatzik eman ez duen arren, duela hogeita hamar bat urte egin zituela oroitu du, eta detaile bat ere eman du: "Gizonezkoari zozo bat jarri nion eskuan". Hegan egin du, baina, zozoak *Joxe Mari*-ren ondotik, dantzariak dantzan nola, hanka-puntetan.

Egunean Behin jokoaren 21. denboraldia hemen da!

Barrena
BATZEN GAITUENA

**egunean
behin**

TOKIKOM LIGA

Animatu eta batu zaituz Tokikom Ligako Barrena taldera
(maiatzaren 11tik aurrera, aplikazioko zure abatarrean klik egin)